

hh
hik hasi

STING proiektua
Gorputzaldiak
Euskal baleazaleak
Euskaldun eleaniztunak
Elkar ebaluatzen
Hezkuntzaren erronkak
Jose Luis Otamendi

602



“Euskara ikastearekin euskararen indargune bihurtzen zara, zu zure baitan”

ITZIAR IDIAZABAL

8ekar ILUSTRAZIO eta ipuin LehiaKeta



antolatzailea:

ekar
fundazioa

laguntzaileak:

dakotabox
LA LIBERTAD DE ELEGIR

4M

ASMODee

SentoSphère
FUN FRAG

Morapiaf

Janed

DJECO

HABA

DEVIR

babesleak:

IRRIEN LAGUNAK
www.irrienlagunak.es

LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA

GAIA / 10

STING PROIEKTUA

Elhuyarrek, Europako hainbat agenterekin elkarlanean, zientzia irakasleei zuzenduriko formazioa sortu du, zientziaren irakaskuntzan hezkidetza sustatzeko asmoz. Irakasleak ere estereotipoen eraginpean daudela ohartarazi eta estereotipo horien eragina leuntzeko baliabideak ematea dute helburu. Lehen saioa egin dute Eibarren.

ELKARRIZKETA / 18

ITZIAR IDIAZABAL

Eskoletan hizkuntza-aniztasuna azaleratzearen aldekoa da Idiazabal: "Eleaniztasuna norbanakoarentzat ona bada, gizartearentzat ere bai". EHUko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedrako koordinatzailea da eta Hizkuntzalaritzako katedraduna. Bere ustez, euskara irakasteaz gain, eskolaren egitekoa da hizkuntza hori erabiltzeko adostasuna lortzea.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-02-26).

Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Ez, dena ez dago Interneten

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Sting proiektua. Hezkidetza zientziaren irakaskuntzan

18 ELKARRIZKETA
ITZIAR IDIAZABAL

"Euskara ikastea da hizkuntza gutxitu baten jabe egitea eta hizkuntza gutxitu horren ardura zure gain hartzea"

26 ESPERIENTZIAK 1
Gorputzaldiak

30 ESPERIENTZIAK 2
Albaola eta balea

32 EKARPENAK 1
Ikasle euskaldun eleaniztunak


34 EKARPENAK 2
Norbere lanaren behaketa

36 GALDEIDAZU
JEXUXMARI MUJIK
Zein erronka ditu hezkuntzak?


40 PROPOSAMENA
Futbolariak eta printzesak

42 ATZEKO ATETIK
Jose Luis Otamendi


MURGILDU ZAITEZ ANTZINAKO ZIBILIZAZIOETAN!




Nor ziren antzinako egiptoarrak?
Zergatik eraiki zituzten piramideak
eta nola egiten ziren momiak?



Nor ziren antzinako erromatarrak?
Nora joaten ziren jatera, erosketak egitera
eta garbitzera? Zer egiten zuten ongi pasatzeko?



Nor ziren antzinako greziarrak?
Bazenekien lehenbiziko Olinpiar Jokoak
egin zituztela Olinpian, duela ia 3.000 urte?



Nor ziren zeltak?
Bazenekien muinoen gainetan bizi zirela? Gudukatu
behar zirenean, badakizu gerlari zeltak nola ematen
zioten bere buruari itxura beldurgarria?

Liburu hauetan arkituko dituzu galdera horien erantzunak
eta antzinako herri haien bizimoduari buruzko kontu asko.

Ez, dena ez dago Interneten

editoriala

JASOTZEN DUGUN INFORMAZIO ETA EDUKI GUZTIAREN ARTEAN BEREIZTEN, SAILKATZEN, BALIO DIGUNA HAUTATZEN, HORREN INGURUAN PENTSATZEN ETA KRITIKOKI ANALIZATZEN NORK ERAKUSTEN DU?



Dena Interneten dagoela esaten zaigu. Ikasleek beharrezko informazioa han eskura dezaketela. Internet bilakatu da edukien, informazioaren eta jakintzaren erresuma, irakaslearen eta eskolaren rola zalantzan jartzeraino.

Eta, egia da. Orain dela gutxira arte informazio eskasia izan du gizakiak. Eskolan jasotzen zituen bizitzarako beharrezko edukiak. Gaur egun, berriz, Internet tarteko, informazio izugarri dugu, gehiegitxo akaso, eta gainezka egiten digu alde guztietatik.

Baina informazio eta eduki horren guztiaren artean bereizten, sailkatzen, balio diguna hautatzen, horren inguruan pentsatzen eta kritikoki analizatzen nork erakusten du? Horretarako ere erabilgarria ote da Internet? Eta, uneotan horrenbeste famatzen diren haur eta gazte ekintzaileak, sormendunak eta solidarioak sortzeko ere balio ote du?

Haur batek lokatzetan edota hondarretan jolasean esperimintatzen duena bizi ote dezake Interneten ere? Eta gelakideekin mahaiaren bueltan eztabaidatzen barneratzen

duena errepika ote dezake sarean?

Aldizkari honetan azpimarratutako balioetara jauzi eginez, berdinzale izaten edota euskararen normalizazioaren gaineko kontzientzia eskuratzen laguntzen ote du Internetek? Eta, gaur egun hezkuntzari atxikitzen zaizkion erronkei erantzuten? Alegia, ikas ote daiteke Interneten harreman osasuntsuak izaten, gutxiagorekin hobeto bizitzen, edota aukera eta eskubideen berdintasuna gizaki guztioi dagokigula defendatzen?

Internetek heziketa-bideen eta eskolako jardunaren funtsa birplanteatzeko premia ekarri du. Baina dena ez dago Interneten, eta dena ezin da Interneten ikasi. Aldamenekoa errespetatzen, enpatiaz jokatzeko, auzoaz arduratzen, gizarteko arazoetan inplikatzeko, proaktiboki jarduten... nola ikasiko dute haurrek?

Internetek ere lagundu ahalko du horretan guztian, baina ardura nagusia ezingo da haren gain utzi. Horretarako dago, ordea, eskola. Eta horretarako daude familia zein herria.

“Magia dirudi, baina egiaztatuta dago irakasleak ikaslearenganako espektatiba onak baldin baditu, bete egingo direla, eta berdin espektatiba txarrekin” Irene Lopez



EUSKARAZ IRAĶATSIKO DUTE IRUNEKO BESTE BI HAUR-ESKOLAK

Iruñeko auzo guztietan euskarazko haur-eskolak egon zitezten hamaika mobilizazio egin izan dituzte gurasoek, sindikatuek eta euskalgintzak urte luzez; izan ere, azken 20 urteotan 17 haur-eskolatatik 2tan soilik zegoen euskarazko eskaintza. Datorren ikasturtetik aurrera, ordea, beste bi haur-eskola hasiko dira aukera hori ematen: Donibane eta Arrosadiako Printzearen Harresia. Horrela, EGA maila duten 26 lanpostu berri sortuko dira, eta oraingo langileak beste postu batzuetara mugituko dituzte. Beraz, ez da kaleratzerik izango.

NEURRIAK HARTZEKO ESKATU DUTE ETORKINAK EZ DAITEZEN SARE PUBLIKOAN PILATU

ELA, LAB, Steilas, CC00, UGT eta ESK sindikatuek eta eskola publikoko eragile batzuek, tartean EHIGE guraso elkarteak, etorkinen seme-alabak eskola publikoan ez pilatzeko neurriak hartzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari eta Gasteizko Udalari, salatu dutenez, "segregazio egoera" baitago gaur egun; bereziki kezkatuta agertu dira Gasteizko egoerarekin. Datuek desoreka erakusten dute: ikasleen erdia matrikulatzen da eskola publikoaren sarean, baina etorkinen seme-alaben 4tik 3 hartzen du sare publikoak.



LOMCE baliogabetzeko urratsak abiatu dituzte Espainiako Kongresuan

Abenduan eginiko hauteskunde orokorren ondorioz, orain arte Gobernuan egon den PP alderdiak gehiengo osoa galdu du Espainiako Kongresuan, eta, hori ikusirik, Espainiako PSOE alderdiak tramiteak hasi ditu Kongresuan bertan LOMCE hezkuntza-legea bertan behera uzteko. Hain zuzen, bi ekinbide aurkeztu ditu. Batetik, legez besteko proposamena aurkeztu du, gobernuari eskatzeko eten dezatela LOMCE ezartzeko egutegia; bide laburrena litzateke, baina Espainiako Gobernuan azkenean PPK jarraituko balu, baita zailena ere. Bestetik, legea aldatzeko proposamena aurkeztu dute. Espainiako Kongresuak berak bideratuko luke hori, eta egun LOMCE erreformaren aurkakoak diren alderdiak gehiengo dira parlamentu horretan.

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzako Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak iragarri du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez dituztela egingo Lehen Hezkuntza amaierako ebaluazio-probak; 6. mailakoak, alegia. LHko 3. mailako azterketak mantendu egingo dituzte, ordea. Nafarroan, berriz, LAB sindikatua-
ren esanetan, Hezkuntza Departamentuak jakinarazi die ez dutela ebaluazio-
probak egiteko asmorik.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

ESKOLETAKO JANGELETAN ZERBITZUA EMATEN ZUTEN 8 ENPRESARI ISUNA JARRI DIOTE, IRUZURRAGATIK

Lehiaren Euskal Agentziak frogatutzat eman du legearen aurkako jokabidea izan zutela Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan *catering* zerbitzua ematen zuten zortzi ikastetxek, zerbitzuak banatzea adostu zutela eta. Jardun hori hamar ikasturtetan zehar egin zutela dio Agentziak, 2003-2015 bitartean. Ondorioz, enpresa horietako bakoitzak 18,4 milioiko isuna ordaindu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoen jantokiak hornitzeko lan eskaintza bi ataletan egin zuen. 2003 eta 2014 bitartean. Ikastetxeak sailka antolatuta zeuden, kokapen geografikoaren arabera. Eskaintza hark bi fase izan zituen: lehenengoan, zerbitzua emateko gaitasuna egiaztatu behar zuten, eta, bigarrenengan, kontratua eskuratzen saiatu behar zuten. Alegia, beraien artean lehiatu behar zuten, baina, Agentziaren arabera, ez zen halakorik gertatu. Horren ordez, ikastetxe-sailak elkarren artean banatzeko sistema bat abiarazi zuen. Hala, eskaintzak adostu egiten zituzten eta "adostasun horri esker, prezio garestitua ezarri zuten."

Lehiaren Euskal Agentziak "oso larritzat" jo du jokabide hori, enpresek "aparteko" irabaziak izan baitzituzten, interes orokorraren kalterako. Ikerketa eta ondorengo isuna 2013an Aiba enpresak jarritako salaketa baten ondorioa izan da.

Irakasle-postu aldaketen kontra, protestak



2016ko irailetik aurrera, Bordeleko Akademia ikuskaritzak orotara 18 irakasle postu ezabatu ahal izango ditu Ipar Euskal Herrian; jada ziurra da horietatik 10 kendu egingo dituela, eta beste zortziekin zer egin irailetik aurrera eskolatan izena ematen duen haur kopuruaren arabera erabakiko du.

Seguru kenduko dituzten postu horien artean, bi eta erdi gela elebidunetakoak izango dira; hain zuzen, Lapurdiko Hazparden, Baionan eta Biriatur, Behe Nafarroako Baigorri eta Zuberoako Barkoxen ezabatuko dituzte, postu erdika. Postuak kendu ez ezik, beste leku batzuetan sortu ere egingo dituzte, eta, hizkuntzari erreparatuta, nagusiki euskarazkoak izango dira: 8 postu irekiko dituzte, gehienak Lapurdin eta bereziki kostaldean, postu erditan banatuta. Dena dela, Biga Bai elkartekoek salatu dutenez, euskarazko geletarako hitzarturiko kopuruak ez dira errespetatu. Horren harira, irakaskuntza elebiduna itotzea leporatu diote ikuskariari: "Elebiduneko ikasleak emendatu badira ere, Baiona-Angelu-Miarritzen eta Hego Lapurdin ez da gela berririk irekiko. Alta, badakigu euskararen geroa hor jokatzen dela".

Batez beste 22,68 ikasle izango da ikasgelako, eta, murrizketak salatzeke, protestak egin dituzte eskola ugarian.



EUSKAL EDITOREEN ELKARTEAK AIRAKURRI IRUZKIN LITERARIOEN LEHIAKETA ANTOLATU DU



Euskarazko literatur zaletasuna sustatzeko asmoz, Airakurri lehiaketa antolatu du Euskal Editoreen Elkarteak. DBHko 2. mailako ikasleei dago zuzenduta proiektua, eta helburua da gazteak literatur kritikari bilakatzea. Horretarako, www.airakurri.net webgunea jarri dute martxan, eta bertan ikasleek beren liburu gustukoenen inguruko iruzkin literarioak argitara ditzakete. Apirilaren 15era arte bidal ditzakete ikasleek iruzkinak, eta horien artean onenak eramango du saria: liburu sorta bat eta tableta bat. Saritutako ikaslearen ikastetxeak ere liburu sorta bat jasoko du.

Lehiaketaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, eta euskararen erabilera ikastetxeetatik harago bizitzako esparru guztietara zabaltzea. Lehiaketaren bidez ikasleei euskaraz irakurtzeko aitzakia gustagarri bat eskaini nahi diete antolatzaileek.

BERNARD AUCOUTURIER BILBON IZANGO DA APIRILAREN 9AN ETA 10EAN

Psikomotrizitate geletako jardunaren inguruan hausnartzeko eta hezitzaileen nahiz bestelako profesionalen zalantzak argitzeko Bernard Aucouturier psikomotrizitate-praktikaren sortzailea Bilbon izango da apirilaren 9an eta 10ean Praktika Psikomotrizerako PEI-EIP eskolak antolatutako formazio-saioan. Informazio gehiagorako edota izena emateko www.escvpsicomotricidad.com helbidera jo daiteke.

'PARTE-HARTZEA HEZKUNTZA- ERREMINTA GISA' JARDUNALDIA EGINGO DA MARTXOAREN 17AN

Jolas eta Ekinek antolatuta, *Ikasketa Zerbitzua. Parte-hartzea hezkuntza-erreminta gisa* izeneko jardunaldia egingo da martxoaren 17an (9:00etatik 14:00etara), Gasteizko Europa Jauregian. Joan den azaroaren 6an Donostian egindako jardunaldiak izan zuen arrakasta ikusita erabaki dute beste saio bat ere eskaintzea. Antolatzaileren esanetan, etengabe aldatzen ari den gizarte honetan aurrera egiteko ezinbesteko tresna dira ekimena, sormena eta parte-hartzea. Saioa doakoa da, baina parte hartzeko izena eman behar da. Informazio gehiagorako jolasetakin@gmail.com helbidera idatzi daiteke edota 945 226595 telefono zenbakira deitu.

JATORRIZKO MUGIMENDUARI BURUZKO TAILERRA DANTZAGUNEAN

Martxoaren 12an eta 13an *Jatorrizko Mugimenduaren hastapena* izeneko ikastaroa emango du Maria Elena Garciak Gipuzkoako Dantzagunean, bereziki irakasleei eta gizarte langileei zuzenduta. Informazio gehiagorako jatorrizkomugimendua@gmail.com helbidera idatzi behar da edota 697886231 zenbakira deitu.

HIZPIDE IZANGO DA

REGGIO EMILIAKO LEHEN HEZKUNTZA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA APIRILAREN 16AN, DONOSTIAN

Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskolek, 0-6 urte artekoek, ospe handia dute mundu osoan. 50 urteko ibilbidea egin eta gero, duela 6 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza nolakoa den ezagutzeko jardunaldia antolatu du Hik Hasik apirilaren 16rako (9:00etatik 18:00etara), Donostiako EHUen.

Lan egiteko moduagatik nahiz hezkuntzaren gainean duten ikuspegiagatik berritzaile eta eredu garri izan daitezkeen hainbat ikastetxeren esperientzia ezagutarazteko jardunaldiak antolatzen dihardu Hik Hasik 2015-2016 ikasturtean, bereziki Lehen Hezkuntzan lanean ari diren profesionalen zuzenduta.

Joan den azaroan, Kataluniako El Martinet ikastetxearen proiektuaren berri emanaz hasi ziren jardunaldiok. Otsail amaieran berriz, Amara Berri sistema ezagutzeko aukera izan zen. Eta, amaitzeko, apirilaren 16an, Reggio Emiliako Lehen Hezkuntzako esperientzia nolakoa ari den izaten kontatuko dute bertako profesionalak. Eskolaren ezaugarriak azaltzeaz gain, Haur Hezkuntzako filosofia Lehen Hezkuntzara nola eraman duten esplikatu dute.

Jardunaldian izena emateko epea zabalik dago jada. www.hikhasi.eus webgunean egin daiteke matrikula. Informazio gehiago behar izanez gero, berriz, hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatzi behar da, edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.



Otsailaren 26an eta 27an Amara Berri hezkuntza-proiektua ezagutzeko jardunaldiak egin ziren.

HAURREN SEXUALITATEAREN GAINEKO TAILERRA EGINGO DA UR TANTA ESKOLAN MARTXOAREN 12AN

Laztandu Sexologiak dinamizatuta, haurren sexualitateari buruzko tailerra antolatu du Itzurbeko Ur Tanta Eskolak (Nafarroa), martxoaren 12rako. Ikuspegi holistikoa oinarri hartuta, umeen sexualitatearen garapenean laguntzeko erreminta teorikoak nahiz praktikoak landuko dira. Javier Caro Aparicio eta Miren Izko Cruz sexualitateko adituek emango dute tailerra, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Saioa 50 euro kostatzen da. Bazkaria ere hartu nahi izanez gero, berriz, beste 10 euro ordaindu behar dira. Izena emateko urtantaeskola@hotmail.com helbidera idatzi behar da edota 685796578 telefono zenbakira deitu.

EZTABAIDA IREKIA 'GURE NORTASUNA' LIBURUXKAREN GAINEAN

Martxoaren 7an, Hik Hasik antolatuta, eztabaida irekia egingo da Juan Inazio Hartsuagak osaturiko *Gure nortasuna* hausnarketarako materialaren gainean. Saioa 17:30ean izango da Donostiako EHUren Irakasle Eskolan (Oñati plaza, 2). Doakoa da, baina parte hartzeko hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatzi behar da edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.



Denbora da gizartean gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko aldarria onartua eta zabaldua dagoela, baina, oraindik orain, eremu askotara iristeko dago. Aldarritik errealitaterako jauzia falta da, baita irakaskuntzan ere. Hezkidetzak hitzetik hortzera erabili arren, irakasleen artean ere eragina dute generoaren inguruko estereotipoek eta espektatibek. Elhuyarrek, Europako beste hainbat agenterekin elkarlanean, zientzia irakasleei zuzenduriko formazioa sortu du. Irakasleak ere, gainerakoak bezala, estereotipoen eraginpean daudela ohartaraztea du helburu, hori onartu eta estereotipo horien eragina leuntzeko zer baliabide erabil ditzaketen azaltzeko. Formazio horren lehen saio egin dute Eibarren, zientzia-ikasgaietako irakasle sortarekin, eta ekainean jarraituko dute.

GAIA: STING PROIEKTUA

Hezkidetzaren zientziaren irakaskuntzan

Hezkidea eta berdintasuna, hitzetik hortzera darabiltzagun hitzak, boladan daudenak. Zenbaitetan, aldarrikapenetik modarako jauzia ere egin dute, eta, politikoki zuzena denaren eremuan, inork gutxi esango du ez dagoenik hezkidetzaren alde, ez dituenik barne-barneraturik berdintasunezko jarrerak, konbentzimendu osoz. Hezkuntzaren eremuan ere, hamaika ikastetxetan landu dituzte hezkidetzaren plangintzak, berdintasun-orientatzaileak kontratatu dituzte... Baina, eguneroko praktikara etorrita, irakasleek berdintasun osoz tratatzen ote dituzte ikasleak geletan?

Nazioarteko hainbat ikerketak agerian uzten dute oraindik bide luzea dagoela egiteko. Herbehereetan egindako ikerketa batean, ikusi zuten irakasleek adjektibo desberdinak erabiltzen zituztela neskek eta mutilak ebaluatzeko. Mutilek zerbait oker eginez gero, esaten zitzairen ez zirela behar hainbeste saiatu, edo alferrak izan zirela. Neskei, aldiz, oker eginez gero, ez zirela gai adierazten zitzairen; alegia, haien adimenarekin eta gaitasunekin lotzen zuten emaitza txarra. Ondo eginez gero, aldiz, mutilei bizkorrak zirela adierazten zitzairen, gaitasuna zutela; neskei, berriz, emaitza ona asko saiatzearen ondorioz, ahaleginaren eta lanaren ondorioz izan zela adierazten zitzairen.

Israelen egindako beste ikerketa batean, nesken eta mu-



Danel Solabarrieta

tilen notak neurtu zituzten, eta sexuaren arabera batez besteko bat atera zuten. Horren ondoren, azterketa batzuk eman zituzten zuzentzeko hainbat irakasleri, ikaslearen izena estalita, eta, beraz, ikaslearen sexua ezkutatuta. Bada, modu horretan eginda, nesken batez bestekoa igo egin zen, irakasleek azterketak izena eta sexua jakin gabe zuzentzean.

Europako zientzia-museoak egindako ikerketa batean, berriz, neurtu egin zuten neska-toei eta mutikoei museoan azalpenak ematen erabilitako denbora. Ikusi zuten, azalpenak ematerakoan, denbora gehiago eskaintzen zieten mutilei neskei baino.

Oraindik, bide luzea dago egiteko, beraz, eta, dirudienez, ez da tokiko arazoa, globala baizik. Horri erantzuteko, Sting proiektua jarri zuen abian Elhuyar Fundazioaren Zientzia Sailak. Europa mailako beste hainbat erakunde izan ditu lagun bide horretan: irakasleen trebakuntzan aritzen den Zipreko European University; Danimarkako Experimentarium zientzia-museoa, hori ere irakasleen

GAIA: STING PROIEKTUA

Hezkidetza zientziaren irakaskuntzan



Eibarko trebakuntza-saioan, talde txikitan elkartuta, besteak beste aldizkarietako azalak aztertu zituzten.

prestakuntzan aritzen dena; Esloveniako Hiza zientzia-museoa; Turkiako Hacettepe unibertsitatea eta Maya Schools; Herbehereetako Nemo-NCWT zientzia-museoa; Norvegiako NTNU zientzia eta teknologiako unibertsitatea; eta, azkenik, Erresuma Batuko St Mary's unibertsitatea, irakasleen prestakuntzan aritzen dena.

Proiektuan parte hartzen duten eragileek bi jardun-eremu

partekatzen dituzte, zientzia eta irakasleen prestakuntza, alegia; bai eta kezka bat ere: hezkidetza. Gauzak horrela, zientzia-hezkuntzaren kalitatea hobetzea da proiektuaren helburu orokorra, eta hori “hainbat modutara egin daitezke; horietako bat da sexuaren ikuspegia txertatzea, edo, gutxienez, aintzat hartzea”, Elhuyar Zientzia Saileko Danel Solabarrieta pedagogoaren esanetan. Helburu hori lortzeko, zientzia-irakasleak hezkidetzan trebatzeko metodolo-

gia landu dute, irakaskuntza-prozesuan berdintasunezko jarrerak izan ditzaten ikasleekin.

Kontzientziak pizteko trebakuntza

Trebakuntza hori, alde batetik, irakasleek jarraitu beharreko irizpideak, ikasgelan hezkidetzaz lantzeko ariketak eta antzekoak erakustera bideratuko da. Baina prestakuntzaren xede nagusia irakasleen kontzientziak astintzea da, eta aldatetarako jarrera sortzea: gizarteko gainerako kideok bezala, haiek ere, sexuari dagokionez, estereotipoak dituztela ohartaraztea, hori onartzea, eta estereotipo horien eragina gutxiagotzeko baliabideak ematea.

Izan ere, egoeraren inguruko kontzientzia falta da. Batetik, “irakasle asko ez dira kontziente Newtonen legeak azaltzen ari direnean ere sexuaren gaia lantzen ari direla”. Hezkidetzaz lantzeko, agian pentsatuko dute aski dela ariketa zehatz bat egitea horren inguruan, emakume zientzialariak ezagutarazteko egun bat hartuta edo; baina “hori baino eraginkorragoa da zuk hezkidetzaren ikuspegia txertatzea zure irakaskuntza-prozesuan: taldeak osatzerakoan, ikasleak ebaluatzerakoan, ikasleekin feedbacka egitean edo galderak egiten dizkiezunean, dinamizazio horretan...”.

Bigarrenik, egoeraren inguruko kontzientzia-faltaren erakusle, irakasle asko eta, oro har, norbanako asko ez dira kontziente beraiengan, ustez berdintasun-gaietan sentsibilitate handiko diren horiengan, sexuen estereotipoek duten eraginaz. “Erraza da komunikabideek estereotipoak elikatzen dituztela salatzea, baina gehiago kostatzen da onartzea geuk ere estereotipoak ditugula”, Solabarrietaren esanetan. Baina hasieran aipaturiko ikerketek erakusten digute egon badaudela, irakasleen eta hezitzaileen artean ere. “Alarmita jarri gabe, gakoa lasai hartzea eta onartzea da. Hori lotuta dago gure garunaren funtzionamendurekin, kategoriatan egiten baitu lan; eta, beraz, normala da estereotipoak izatea. Ez bakarrik sexu-kontuetan; badaude zientziaren inguruko estereotipoak edo zientzialarien ingurukoak ere...”, dio Solabarrietak. “Kontua da zer egin genezakeen estereotipo horien eragina txikitzeko”.

Sting proiektuaren baitan egindako ikerketa eta ariketan, ondorio nagusi batera iritsi dira: gure ekintzak bat-batekoak direnean, esan edo egin behar denaz gogoeta egiteko edo, adibidez, ariketa bat prestatzeko zenbat eta denbora gutxiago izan, orduan eta handiagoa izango da estereotipoen eragina. Aldiz, esan edo egin behar denaz hausnartzeko zenbat eta denbora gehiago izan, orduan eta

kontzientzia handiagoa hartuko dugu estereotipoen, eta gaitasun handiagoa izango dugu horrelakoak ekiditeko estrategiak antolatzeko. “Erabaki bat hartzeko oso denbora gutxi baduzu, handia izango da estereotipoen eragina. Baina, adibidez, talde-dinamikak gelan nola egingo dituzun hausnartzeko aurretik denbora hartzen baduzu, ikasleak nola taldekatuko dituzun edo ebaluazioa nola egingo duzun erabakitzeke denbora hartzen baduzu, hori guztia aurretik ondo prestatzen baduzu, jaitxi egiten da estereotipoen eragina”, dio Solabarrietak. Eta, beraz, “hezkidetzaz lantzeko jarraibideak ematea baino gehiago, irakasleen jarrera aldatzea da trebakuntzaren gakoa”.

Estereotipoen eraginari aurre egiteko eta, oro har, sexu-ikuspegia hartzeko bide horretan, lagun bikaina izan daiteke berrikuntzarako grina. Gelako dinamika nola antolatuko duen hausnartzeko denbora hartzen badu irakasleak, segur aski ordu arte egiten zuenarekiko zerbait desberdina, berria, sortuko du. Eta, “gauza berri bat egitean, adiagongo da betiere irakaslea”. Arlo horretan, Solabarrietak argi utzi du: “Zerbait berria egitea ez da behin gauzak egiteko modu berri bat topatu eta aurrerantzean hala egitea, baizik eta, egunez egun, beti probatzen joatea. Zerbait berria probatu eta ondo atera bazaizu, ez geratu horretan, saiatu are hobeto egiten”. Horrela, irakasle bakoitzak ebaluatu egin behar ditu bere jarduna eta horrek ikasgelan sorturiko dinamika eta giroa. Izan ere, “zer edo zer aldatzen baduzu, horrek beti dauka eragin bat, positiboa edo negatiboa; baina, zerbait desberdina egin duzun unetik, erantzuna ere desberdina izango da. Azkenean, gauza berriak probatu behar dira etengabe, eta hobetzen joateko zerk funtzionatzen duen ikusi behar da”.

Ariketan oinarrituriko materiala

Berrikuntza diskurtsotik praktikara eramateko, bost egunez egon ziren Sting proiektuko bazkide diren eragile guztiak Herbehereetan bildurik. Hainbat ariketa prestatu eta probatu zituzten irakasleen artean, estereotipoen presentziaz eta eraginaz jabetzeko eta beraien ikasgeletako praktikan estereotipo horien eragina leuntzeko. Horrekin batera, irakasleen, gurasoen eta ikasledeen espektatibak eta ikasleek errendimendu-itxaropenak landu nahi dituzte. Izan ere, bi faktore horiei dagokienez, espektatibak eta errendimendu-itxaropenak baxuagoak izaten dira nesketan, zientziaren eta teknologiaren alorretan.

Herbehereetan probaturiko ariketa horietako batzuk hartuta, Euskal Herriko zientzia-irakasleei zuzenduriko tre-

GAIA: STING PROIEKTUA

Hezkidetza zientziaren irakaskuntza

bakuntza prestatu du Elhuyar Zientzia Sailak. Urtarrilean egin dute proba edo trebakuntza pilotua, Eibarko Berritzegunean. Lehen saio horretako balorazioetatik abiatuta, hainbat doikuntza egingo dute, eta ekainean bigarren saio irekia egiteko asmoa dute.

Saio horien helburua da irakasleei hausnarketa egiteko denbora eta tokia ematea, beste irakasle batzuekin elkarrietzeta eta eztabaida egiteko. Lehen urratsa estereotipoen eraginaren inguruan kontzientziak piztea da, eta, horretarako, Herbehereetan prestatutako jarduera horiek lantzen dituzte irakasleekin; ordu laurdeneko edo ordu erdiko ariketak dira, “oso motzak eta asko, bata bestearen atzetik egiteko”.

Bigarren urratsa da irakasleei ikusi duten hori ikasgeletara, beraien praktikara, eramaten laguntzea. Gogoeta abiatzeko eta norabide egokian bideratzeko, material, baliabide eta dokumentazio ugari emango diete irakasle horiei. “Ez diegu esan nahi irakasleei zer egin behar duten. Esaten badiegu, ‘hau horrela egin behar da’, agian erantzungo dute: ‘bai, nik hori egiten dut’; edo ‘hori egin nuen, eta ez zidan funtzionatu’; eta blokeoa sortzen da. Guk esperientzia asko

ezagutu ditugu, ikerketa asko irakurri ditugu, programa asko irakurri ditugu... eta ikusi dugu zerk funtzionatu duen ondoen. Baina irakasle bakoitzari dagokio horren inguruan gogoeta egitea, eta bere gelara nola egokituko duen pentsatzea”. Agian, probatuko du, eta ez du funtzionatuko; beraz, irakasle bakoitzari dagokio jarduera hobetzeko nola egokitu, zer aldatu erabakitzea. Hortaz, garrantzitsua izango da emaitza neurtzea, egindako lanaren ebaluazioa egitea.

Honekin guztiarekin, irakasleen trebakuntzarako materiala sortu nahi dute Sting proiektuko kideek. Orain, material hori probatzen ari dira, Eibarren egindako saioan, esaterako; eta, irakasleen erantzunetik abiatuta, beharrezkoa dena moldatuko dute, eta behin betiko materiala sortuko dute. Horren ondoren, material hori guztia libre jarri nahi dute, edonorentzat eskuragarri. “Erabilgarria izan daiteke irakasleen trebatzaileentzat, eskoletako orientatzaileentzat...” Oraingoan, interesa agertu duten arren, ez dute lortu inplikazio zuzenik Euskal Herriko administrazioen, irakasle-eskolen edo zientzia-museoen aldetik.

Esan bezala, oraindik bide luzea dute egiteko.

Bokazioak badaki generoaz

Estereotipoek gutako bakoitzarengan duten eraginaren kontzientzia-falta ez da irakasleen artean soilik gertatzen; ikasleak ere, baita neska diren ikasleak ere, horren eraginpean daude. Bestela, nola ulertu zientzietako goi-mailako ikasketetan, bereziki teknologiarekin loturikoetan, askoz ere emakumezko ikasle gutxiago izatea, baldin eta ikaskuntza-prozesuan zehar mutilen antzeko notak edo hobeak ateratzen badituzte? Non dago bokazio-falta horren iturria?

Ikasleen bokazioetan eragina duten faktoreen inguruko jakintza bildu du Elhuyar Zientzia Sailak. Batetik, eragina dute familia-arrazoiek, eta, adibidez, sendian zientziaren eremuan lanean ari den norbait izateak eragina du zientziarekiko bokazioa pizterakoan. Egoera ekonomikoak eta ingurune sozialak ere eragiten dute, bai eta hezkuntzak ere. Baina hezkuntzaren eremuan egindako lanak eragin mugatua izango du zientziarekiko bokazioak pizterakoan, pisuzko beste faktore batzuen eragina ere neurtu behar baita.

Solabarrietak dioenez, “ikasle batek zer ikasi erabakitzen duenean, erabaki hori ez da modu bakartu batean hartzen;

hainbat faktorek eragiten dute horretan. Horietako batzuk uste okerrak dira, edo gizartetik datozen presioak. Batez ere nesken kasuan, badaude hainbat gauza, deigarriak direnak”. Izan ere, Matematikako, Fisikako edo Ingeniari-tzako ikasketetan, ia denak mutilak izaten dira; zientziarekin loturiko ikasketaren bat aukeratzekotan, neskek maizago jotzen dute zaintzarekin loturiko eremuetara, Medikuntzara, adibidez.

Errazagoa da “nota kaskarrak ateratzen dituen ikasle mutil batek ingeniartza-ikasketak aukeratzea, erdipurdiko notak ateratzen dituen neska batek aukeratzea baino”. Esparru horretan, jokoan sartzen dira aurrez aipaturiko hainbat faktore, espektatibak eta errendimendu-itxaropenak, besteak beste. Baina baita zientzialarien inguruko estereotipoak ere, uste zabaldua eta okerra baita zientzia-ikasketak aukeratzeko ikasle bikaina izan behar duzula.

Horretan guztian, “oso garrantzitsua da autokonfiantzaren kontua: nesketan, oro har, autokonfiantza baxuagoa da mutiletan baino, zientzia-ikasketak egiteko orduan, nahiz eta batzuetan nota hobeak izan”. Ildo horretatik, autokonfiantza hori lantzeko bidean, uste du garrantzitsua dela irakasleei egungo emakume zientzialarien ereduak gerturatzea.

Kontzientziak esnatzen

Elhuyar Zientzia Sailekoek Eibarko Berritzegunean jarri dute lehen aldiz praktikan irakasleekin Herbehereetan Sting proiektuko gainerako kideekin egosirikoa. Estereotipoen eraginaz ohartarazteko eta horiek ekiditeko bideak elkarlanean aztertzeko asmoz, bospasei ariketa egin zituzten, egun osoko jardunaldian zehar. Horietan, 27 ikastetxetako kideek parte hartu zuten; zientzia-irakasleak ziren nagusiki, nahiz eta tartean baziren hezkidetzaz arduratzen direnak ere. Besteak beste, Iruñeko San Fermin ikastolako kideak, Arrasateko institutukoak edo Elorrioko ikastolako kideak bildu ziren.

Hasteko, trebakuntza-saiora zer itxaropenekin joan ziren galdetu zieten han bildutakoei. Nagusiki, kontzientzia hartzea bilatzen zuten irakasleek; batek adierazi zuenez, “ohartzen ez garen jarrerekin konturatzea”. Horrekin batera, hori lantzeko baliabideak eskuratu nahi zituzten, eta saioan landurikoa gero eskola-komunitatean zabaltzeko baliabideak edo jarraibideak ere eskuratu nahi zituzten.

Hain zuzen, saioaren balorazioan ikusi zenez, batik bat kontzientzia hartzeko balio izan ziren irakasleei saioak.

Hortik hasi zen prestakuntza-saioa, hainbat ariketa egin baitzituzten estereotipoak identifikatzeko. Adibidez, gizona eta emakumea nahiz zientziak eta humanitateak kategorietan sailkatu behar zituzten hainbat hitz, entzun ahala, gorputzeko atal bat kolpatuz. Pentsatzeko denborarik gabe, gogoetarik egiteko tarterik gabe, bakoitzaren baitako estereotipoak berehala jarri ziren agerian; “pentsatzeko denbora hartzen baduzu, baxuagoa da estereotipoen eragina. Oso gauza logikoa dirudi, baina, askotan, ez dugu hori egiten lanean”, Solabarrietaren irudiko.

Beste ariketa batean, Elhuyar Zientzia Saileko kideek hainbat aldizkaritako azalak erakutsi zizkieten irakasleei; argitalpen horietako batzuk emakumeei zuzenduak ziren, besteak gizonezkoei, eta, tartean, baziren zientzia-aldizkariak ere. Horiek ikusirik, honako galdera hauei erantzun behar zieten irakasleek: Zer egiten ari dira neskek? Eta mutilak? Zer egoera emozional erakusten dute? Eta zer jarrera? Lagungarri izan zen estereotipoen inguruan gogoeta egiteko.

Beste dinamika batean, berriz, hezkidetzaren inguruko dokumentazio ugari jarri zuten irakasleen eskura. Horiek aurrean izanik eta taldetan banatuta, irakasleek honako



GAIA: STING PROIEKTUA

Hezkidetza zientziaren irakaskuntza



Talde handian partekatu zituzten talde bixiekian egindako gogoetak.

bi galdera hauei erantzun behar zieten: *Zer egiten dut nik ondo, besteentzat lagungarri izan daitekeena? Zer egin dezaket berria, zer probatu dezaket?*

Ariketa horretan, irakasleek ideia interesgarriak partekatzeko aukera izan zuten. Besteak beste, emakume zientzialarien ereduak ikasleen artean zabaltzeko beharra aipatu zuten. Historian zehar garrantzia ukatu izan zaien emakume zientzialarien aldarria egitearen garrantzia azpimarratu zuten ia talde guztietan, baina, era berean, hezkuntzan generoarekin lotutako rola lantzeko gertuko ikertzaileak ezagutaraztea ere ekimen interesgarria izan daitekeela aipatu zuten. “Sarri, urrutikoa egiten zaie Mari Curie; beste herrialde batekoa eta beste mende batekoa da eredu hori”, irakasleetako batek adierazi zuenez. Beraz, egungo emakume zientzialariak ikasgelan ezagutaraztea proposatu zuten; beraientzat gertukoak eta erakargarriak izan daitezkeen ereduak, eta, generoarekin lotutako estereotipoen gain, zientzialarien inguruko estereotipoak gaintzen ere lagunduko dietenak; alegia, zientzialari izateko ez dutela zertan “arraroak edo talentu apartekoak” izan ikusaraziko dietenak. Zentzu horretan, Solabarrietak berriro gogorarazi zuten berrikuntza eguneroko praktikan txertatu beharra zegoela: “Ikertzaile bat ikasgelara gonbidatu dugu, eta ondo atara da. Bada, hurrengorako pentsatu ea gaztea ala zaharra izan behar duen, arrunta edo ikertzaile-izarra, hura etorriko den gurera, edo gu joango garen haren ikerketa-zentrora... Ez dakigu zein den biderik onena; probatu egin behar da”.

Bestalde, ebaluazioak egitean ikasleen izena estaltzeko proba egitea proposatu zuten hainbat irakaslek, horrek emaitzetan eraginik ba ote zuen ikusteko; edo, bestela

esanda, beren burua probatzeko. Taldekatzeen kontuak ere eman zuten zeresanik. Izan ere, bizpahiru irakaslek aitortu zuten, mugitua den edo ikasketetan arazoak dituen ikasle mutilaren taldean ikasle neska diziplinatu bat jartzeko joera izan ohi da, neska horrek bestea baretuko eta zentratuko duelakoan. Alegia, taldeak egiterakoan, zaintzailearen rola esleitzen zaio neskari. Beraz, taldeak nola egin pentsatzeko denbora hartu behar zela zioten, estereotipoen eragina saihestu ahal izateko.

Eibarko saioan ez zuten astirik izan taldeak osatzearekin loturiko beste dinamika bat egiteko, baina irakasleek azaldu egin zieten zertan zetzan, gelan aplikatu nahi izanez gero ere. Taldeetan banatuta, paperarekin egitura bat eraikitzea litzateke dinamikaren funtsa; baina kontua ez da emaitza, eraikitako egitura bera, alegia, baizik eta talde horretan sortzen diren botere-harremanen behatzea, ikustea ea nork hartzen duen rol aktiboa, zein den baretze-lanak egiten dituen...

Bizpahiru hilabetez, beratzen utziko dute orain trebakuntza-saioan landutakoa. Epe hori pasatzean, Elhuyar Zientzia Saileko kideak beraiekin harremanetan jarriko dira, zer balorazio egiten duten eta zertarako balio izan dien jakiteko. Hortik abiatuta, ariketa eta dinamika hobetzeko lan egingo dute, gero guztientzat eskuragarri egongo den prestakuntza-materiala osatzeko asmoz.

Solabarrieta gogotsu dago “saioan bizitaketatik praktikan zer jarri duten galdetzen diegunean zer erantzuten duten ikusteko. Espero dut gutxienez pare bat gauza aldatu dituztela esatea, besterik ez bada ere probatzeko”.

2015/2016

zientziaazoka

elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

APIRILAREN
23an
larunbata

bizi
ikerketa!

Egun osoz,
12:00etatik aurrera!

<http://zientzia-azoka.elhuyar.eus/>

Bilboko Plaza Barria

Antolatzailea

elhuyar
Zientzia

Babesleak



Kolaboratzaileak





“Euskara ikastea da hizkuntza gutxitu baten jabe egitea eta hizkuntza gutxitu horren ardura zure gain hartzea. Eta hori eskolan esatea ez da bekatu”

ELKARRIZKETA:

ITZIAR

IDIAZABAL

EHUKO HIZKUNTZALARITZA KATEDRADUNA

Eskoletan hizkuntza aniztasuna azalratzearen aldekoa da Itziar Idiazabal: “Eleaniztasuna norbanakoentzat ona bada, gizartearentzat ere bai”, dio. EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedrako koordinatzailea da eta Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko katedraduna. Bere esanetan, euskara irakasteaz gainera, eskolaren

bitartez hizkuntza hori erabiltzeko adostasuna ere lortu behar da: “Gaur egun eskoletan hori ez da gehiegi esaten. Egia da bakoitzak erabakiko duela zein hizkuntza erabili, baina ikasle bati esan egiten badiozu zer garrantzia daukan euskararen gaineko kontzientzia hartzeak hizkuntza horren biziraupenean eta normalizazioan, beste gauza bat ere jakin egingo du”.

Gaur egungo euskal hezkuntzaren erronka nagusietako bat ikasle eleaniztunak sortzea da. Baina ikasle eleaniztunez ari garenean, zertaz ari gara? Zer esan nahi du eleaniztun izateak?

Bertako bi hizkuntzetan —euskaran eta gaztelanian edota euskaran eta frantsesean— gaitasun ona izatea, hau da, hizkuntzok ahoz nahiz idatziz egoki erabiltzeko gauza izatea, eta gutxienez atzeritar hizkuntza baten ezagutza nahikoa edukitzea, hots, hizkuntza horretan oinarria bada, la erakusteko gai izatea. Europako mailak aipatzen direnean, eskatzen da bertako hizkuntzetan gutxienez B2-C1 maila edukitzea eta atzeritar hizkuntzan B1 edo antzekoa. Baina horrek ez du asko esan nahi, etiketak jartzea beti delako erraza; horren atzean zer dagoen jakitea, ordea, beste kontu bat da.

Eta euskal eskolek lortzen dute ikasle eleaniztasuna bermatzea?

Ikasle guztiek oraindik ez dute lortzen, hori garbi dago. Dena dela, asko aurreratu da. Bide horretan gaudela esan daiteke, baina oraindik erronka handia daukagu aurrean. Edozein kasutan, konturatu behar dugu oso helburu zaila eta konplexua dela. Gu aspaldian helburu horren atzetik bagabiltza ere, eta gizarteak normala den zerbait bezala eskatzen badu ere, ez da arrunta eta munduan leku gutxitan lortzen da horrelako zerbait. Batetik hiru hizkuntza ikastea erraza ez delako, batez ere kontuan izanik horietarik bi gizarteak ez direla asko hitz egiten. Euskara leku batzuetan bai, baina beste askotan ez. Eta arlo profesional batzuetatik at, ingelesez funtzionatzen duen eremurik apenas dagoen gure artean. Beraz, helburua lorgarria izan daiteke, eta lorgarria izan behar du, baina zaila da, eta horretaz ohartu behar dugu. Lasai ederrean esaten dugu denok eleaniztuzak izan behar dugula. Eta ados nago horrekin, baina kontziente izan behar dugu hori esaten dugunean gauza oso handi bat ari garela esaten. Erronka bat da. Derrigorrezko erronka dela esango nuke gainera.

Zein baliabide ditu eskolak horretara-



rako?

Hemen eskolari eskatzen zaiona asko da. Eskolak zuzenean izango du ardura, baina gizarteak ere laguntza eta babesa eman behar du eta bitartekoak jarri hori lorgarria izan dadin. Nagusiki, ikerketa bultzatu behar da. Formazioa ezinbestean garatzen eta eguneratzen joan behar dugun zerbait da.

Eginkizunaren zailtasunaz, eta aldi berean, ezinbestekotasunaz ohartzeak bitartekoak asko zaintzera eraman behar gaitu. Zentzu horretan, uste dut arrisku handi bat dagoela eta momentu delikatu gaudela. Badirudi nolabaiteko erlaxazio egoera batera heldu dela eskola: oinarrizko egitura martxan dago; emaitzak, oro har, ez dira txarrak; PISAk eta gainerakoek erakusten dute hemengo eskolak batez besteko mailan daudela eta Espainiakoak baino zerbait hobek ere badirela... Baina lasaitzeko moduko zerbait daukagula pentsatze hori oso arriskutsua dela uste dut. Zeren hizkuntza kontuan, bai euskarari, bai atzeriko hizkuntzan —ingelesean nagusiki—, eta esango nuke baita gaztelanian bertan ere, badaude ohartzen ez garen hutsuneak. Eskolak

egin ditzakeen zenbait lorpen oharkabean pasatzen zaizkigulakoan nago.

Adibidez?

Uste dut euskarazko erabilera gaitasuna, eta bereziki ahozkoa ez dela behar bezala edo nahikoa lantzen eta gaitasunik ez badago ezin erabili. Bestalde, gaztelania formalean ere badaude eremu batzuk lantzen ez direnak eta erabilera arruntean geratu ezin direnak. Adibidez, ahozko erabilera formala. Idatzizko formala gehixeago lantzen dela iruditzen zait, baina ahozko formala ez. Askotan gramatikako ortografian oinarritzen gara, baina gero benetan erabileran zuloak badaude. Gaztelaniaren egoera hori bada, zer esanik ez euskararen kasuan eta beste hizkuntzengatik.

Eta egiten diren ebaluazioetan, esaterako ebaluazio diagnostikorako frogetan, ez dira gaitasun horiek neurtzen.

Edozein kasutan, oro har, mailarik onena gaztelanian edo frantsesean izango dute euskal ikasleek.

Bai, dudarik ez. Eta eskakizunen artean euskara da oraindik lan handiak

ematen dizkiguna. Zeren 2005 inguruan egin ziren hizkuntzaren maila ebaluatzeko azterketa orokorrak eta D ereduan bertan ere B2 maila %50 inguruk lortu zuten. Eredu horretan oso emaitza ezberdinak dauzkagu batetik bestera eta orokorrean oraindik hobetu beharreko gauza asko dago. Dena eskolak ezin duela egin ere esango zaigu, eta hori egia da. Hizkuntza baten garapena ez da eskolan bakarrik lortzen. Baina eskolak berak irakatsi edo ziurtatu beharko lituzkeenak zeintzuk diren eta hori zenbateraino lortzen den edo ez den lortzen ere jakin beharko dugu. Eskoletan, oro har, plangintza batzuekin egiten da lan, baina oraindik asko daukagu zehaztu beharra eskakizunetan, irakasteko baliabideetan eta ebaluazio-sistemetan.

Ikasle eleanitzak lortzeko, zer-nolako eredia, metodologia, eta didaktika beharko genuke?

Gure ikasleak eleaniztasunean hezi behar baditugu, batetik, argi izan behar dugu eskolan hizkuntzak ikasteko haien bitartez edukiak ikasiz, murgilketaz, ikasten direla modurik ziurrenean; bestetik, berriz, hizkuntza ezberdinak irakasten dituzten irakasleen artean nolabaiteko adostasun edo koordinazio bat egon behar du. Hau da, komeni da batean egiten dena ahal dela bestean aprobetxatzea. Hizkuntza batean ikasten diren zenbait gauza besteetarako ere baliagarriak ditugu, esate baterako, idatzia- ren metaezaguera, testu-generoen izaera eta antolakuntza diskurtsiboa, hizkuntza bakoitzeko hitzen atzean gordetzen den zentzua, kontzeptuak... edozein hizkuntzatan ikas daitezke eta denetarako baliagarriak izango dira. Eta horren jakitun izatea ona da, batean egindakoa bestean aprobetxatzeko eta gauzak errepikatzen ez aritzeko.

Baina oraindik hizkuntzen arteko elkar eraginen inguruan oso ikerketa gutxi daukagu. Egon behar da jende bat, irakaskuntzako ardurak gerturik ez duena, ikertzen ari dena. Gurean, orokorrean oso kontzientzia txikia daukagu hezkuntza arloko ikerketen premiaren inguruan. Badirudi irakaskuntzan, hizkuntza bat jakitea na-

hikoa dela irakasteko, eta ez dagoela beste munduko ezer jakin beharrik. Baina guk daukagun eginkizuna hain erronkatsua izanik, atzetik sostengua behar da.

Ikerketa eta formazio premia dago, beraz.

Ikerketa serioa egiten ariko den jendea behar dugu. Hizkuntzalariak ari zaizkigu esaten hizkuntzaren funtzionamendua ez dela gramatika eta hiztegi mugatzen. Hizkuntzaren funtzionamenduan diskurtso mailako eragiketa asko gertatzen da. Testu mailako azterketan ahozko eta idatzizko adierazpena esaldiaren gramatikak erakutsi diguna baino askoz gehiago da. Maila horretan euskarazko ikerketa gutxi daukagu, eta horien jakitun izan gabe ezin irakatsi hizkuntzarik.

Hizkuntzalaritazatik harago, eta nolabait maila aplikatuan, didaktikari heldu beharko genioke eta ahalik eta fidagarritasun handiena eskaintzen duten baliabideak erabili. Hiru hizkuntzarekin ari garenean non agertzen dira zailtasun gehiago, zer da batetik bestera pasatzen dena, zer da kutsadura sortzen duena eta zerk dakar aurrerapena, zer gertatzen da itzulpenarekin...

Orain dela 50 urte inguru bigarren hizkuntzen irakaskuntza martxan jarri zenean, metodo modernoek esaten ziguten ez zela itzuli behar, gauzak modu automatikoan ikasi edo erabili behar zirela eta itzultzea ez zela ona, hizkuntza bata bestearekin nahasten guelako. Gaur egun ez da horrelakorik esaten. Badakigu denok etengabe itzultzen ari garela eta guretzat oso baliabide inportantea dela itzulpena, baina eskolak ez daki horrekin zer egin. Ez da aztertzen. Itzulpena egin behar da? Noraino? Zenbaterainoko kontzientzia eduki behar dugu hori egiten ari garela? Ez dakigu. Hizkuntzen irakaskuntzan, hainbat eremutan, jendeak usteekin funtzionatzen du. Hori, ordea, ez da konpontzen irakasle multzo bat urtebetean ikertu dezaten liberatuz. Horretan bakarrik pentsatzen ari den jende prestatua behar da. Irakaskuntza eleanitzak ikerkuntzarako baliabide edo egitura propioak behar ditu.

“Dena eskolak ezin duela egin ere esango zaigu, eta hori egia da. Hizkuntza baten garapena ez da eskolan bakarrik lortzen. Baina eskolak berak irakatsi edo ziurtatu beharko lituzkeenak zeintzuk diren eta hori zenbateraino lortzen den edo ez den lortzen ere jakin beharko dugu”

“Gurean, orokorrean oso kontzientzia txikia daukagu hezkuntza arloko ikerketen premiaren inguruan. Badirudi irakaskuntzan, hizkuntza bat jakitea nahiko dela irakasteko, eta ez dagoela beste munduko ezer jakin beharrik. Baina guk daukagun eginkizuna hain erronkatsua izanik, atzetik sostengua behar da”



Eredu berbera behar du etxetik hizkuntza batekin edo bestearekin datorren haurrak? Edota atzerriko hizkuntzarekin heltzen denak? Eredu berbera behar da ingurune erdaldunean edota euskaldunean?

Ez. Derrigorrez egokitu egin behar dira ereduak eta eskolako plangintza. EAEn nagusi izan den hiru ereduaren sistema aukerarako bitartekoa izan da. Gure gizarteak aukera bat egin du inor gehiegi derrigortu gabe eta horrek balio handia du. Hemen gurasoek haurrak D eredura ez dituzte bidaltzen behartuta daudelako, beste zerbait nahi dutelako baizik: euren seme-alabek euskara ikastea, hain zuzen. Zentzu horretan asmatu egin dugu eta hori onartu beharrekoa da. Beste kontu bat da, munduko beste edozein eskolatan bezala, daukazun ereduak daukazula, hori egokitu beharra dagoela, irakaskuntzan ez dagoelako inolako eredurik, besterik gabe, automatikoki aplikatu daitezkeenik.

Hezkuntzan, hortaz, ez dago emanda datorren eredurik?

Hezkuntza beti da anitza, ezberdina.

Haur baten eta bestearen arteko diferentziak handiak dira gehienetan, eta hizkuntzen irakaskuntzaren kasuan, ezberdintasun indibidual horri lotzen zaio ezberdintasun soziolinguistikoa, hizkuntzaren erabilerak oso anitzak direlako. Hortaz, aniztasuna oinarri izanik egin behar den lan bat da irakaskuntza. Ez dago formula emanik.

Lortu genuen ikasgelan ume guztiak adin berekoak izatea, giro sozioekonomiko berekoak izatea, etab. Talde homogeneo bat edukitzea lorpena balitz bezala jokatzeko dugu askotan, baina talde homogeneorik ez dago. Hori ez da existitzen. Beraz, beti egin beharko da ereduaren egokitzapen bat, eta irakasle on batek badaki hori. Portugaleten irakatsi edo Abaltzisketan irakatsi, ez da gauza bera. Eskola mailan zer egin behar dugun eta hizkuntzen irakaskuntzak zer suposatzen duen zenbat eta gehiago eta hobeto jakin, eta horretarako baliabide eraginkorragoak sortzen goazen heinean, gauzak hobetzen joango gara.

Hizkuntzen irakaskuntzak esko-

laren sistema osoa goitik behera ukitzen du. Ardatza da. Gure eskola goitik behera aldatu da, ez Espainiako Gobernutik etorri zaizkigun erreformen ondorioz, baizik eta guk euskara sartu dugulako. Orain beste hizkuntza bat ere sartu nahi badugu, horrek ere aldaketa oso sakonak ekar ditzake. Zentzu horretan garrantzitsua da helburuak garbi edukitzea. Eta gure helburua, esan bezala, zaila eta konplexua da, erronka handi bat da. Baina horrek eskola hobetzea ekarriko digu behar bezala erantzuten badiogu.

Eta atzerriko hizkuntza nola txertatu daitezke eskolan euskarari kalte egin gabe? Hirugarren hizkuntza ere txikitatik irakastea ezinbestekoa da?

Nik uste dut gai horretan nahikoa adostasun badagoela. Esate baterako, euskara txikitik sartzea ezinbestekoa da, baina ez bestela hizkuntza hori ikasteko ezintasun kognitiborik dagoelako. Alderdi fonetiko-fonologikoari dagokionez, adinak jar diezazkiguke muga batzuk, baina ez bestelakorik. Euskara txikitatik ikastea ezinbestekoa da, batez ere, motibazioari dagokionez. 10 urterekin euskaraz inoiz egin ez duen ume bat euskaraz hizketan hastea akaso ez da hain samurra izango; aldiz, hiru urterekin murgilketa-sistema batean euskara ikasten hasiz gero, giro erakargarri batean, horrek haurraren motibazioan oso eragin positiboa izan dezake.

Txikitatik euskara eskainiz haurrari beste hizkuntza bat ikasteko aukera eskaintzen diozu eta gurasoek hori aberastasun bezala ikusten dute, horrekin ez duelako gaztelania galtzen eta beste hizkuntza bat ikasten duelako.

Eta ingelesaren kasuan?

Ingelesa hasiera-hasieratik sartzearren arrazoiak batez ere alderdi kognitiboetan oinarritu izan dira: “Txikitik ez bada, gero ez da ikasten”. Baina, gaur egun nahiko argi dago hori ez dela horrela. Beharbada, txikitik hasi ezean ahoskera naturala lortzea zailagoa da, baina gainontzean, gaur egun, ingelesaren aldeko motibazioa piztea ez da hain zaila. Eta, gainera, adinean zenbat eta aurrerago, errazago dela

dirudi. Badu erakargarritasuna eta, eskolak hori ondo kudeatzen badu, lor dezake ikasleek atzerritar hizkuntzan oinarri sendo bat lortzea.

Gainera, demostratua dago 4 urterekin hasten direnak ingelesa ikasten edo 10 urterekin hasten direnak, 14 urterekin antzeko mailan dabiltzala. Beraz, ez da hain beharrezkoa 4 urterekin ingelesa irakasten hastea. Norbaitek hala nahi badu, umeari ez dio kalterik egingo. Haurra gai da txikitatik hiru hizkuntza ikasteko. Baina dauzkagun baliabideak ikusita, indarra non jarri erabaki behar dugu. Izan ere, horrek eskatzen du ingelesez oso ondo moldatzen diren irakasleak, besteak beste. Zenbait helburu euskararekin oraindik leku askotan ez baditugu lortu, ez zait iruditzen hain beharrezkoa denik txikitatik ingelesarekin hastea. Azken batean, gure helburuei begira, 10 urterekin hasita ere, 16 urte bitartean gauzak ondo egiten baldin badira, nahiko duina den maila batera iristeko aukerak egon badaude.

Zure esanetan, zenbat eta hobeto jakin hizkuntza bat orduan eta hobeto ikasten da bigarren edo hirugarren bat. Beraz, umeari txikitatik eskaintzen zaion hizkuntzaren kalitateak eragina du haur horrek hizkuntzetan eskuratuko duen mailan?

Umeeak, txikitatik, konplexutasun handiko hizkuntza-egiturak ulertzeko gaitasuna dute. Joera egon da, ordea, haurrari bere mailako hizkuntza ekoizpenak eskaini behar zaizkiola pentsatzeko, bestela ez duelakoan ulertuko. Gertatzen dena da ezezagutza handiarekin funtzionatu izan dugula. Ez dakigu haurrak ulertzeko duen gaitasuna edo zailtasuna, benetan, zenbatekoa den. Dakiguna da ulermen-gaitasuna askoz ere lehena go garatzen dela ekoizpen gaitasuna baino.

Haurrak ulermen maila ezberdinak gara ditzan, eginkizun egokiak planteatu behar zaizkio. Alegia, zuk haur txiki bati gauero ipuin berbera eta modu berean kontatzen badiozu, ez dago arazorik. Horrek aurrera egiteko aukerak emango dizkio. Baina ipuin ezberdinak kontatzen badizkiozu, edo batzuetan irakurri egiten badiozu, beste batzuetan kontatu eta besteetan

antzeztu... are eta hobeto izango da. Izan ere, zenbat eta aukera gehiago eskaintzen dizkiozun, orduan eta ulermenerako eta ekoizpenerako eredu gehiago izango ditu, pertsonok ez baitugu ikasten barrutik datorkigun indar ahalguztidun bati esker, ematen zaizkigun ereduak gureganatzen goazen heinean baizik.

Horregatik, haurrei konplexuak diren ereduak eta eginkizunak planteatzeko beldurrik ez dugu izan behar. Ez dakigu zenbateraino ulertuko dituen, baina horrek atentzioa eta arreta pizten dizkion heinean, balioko du. Ipuin konplexuak ekoizteko gauza ez da izango, baina ulermenari dagokionez, horrek aberastu egingo du bere gaitasuna eta ezagutza.

Kontuan izanik gu hizkuntza gutxitu bat duen gizarteko parte garela, eskolak zer ekarpen egin behar lioke euskarari? Eta zer pisu du eskolak hizkuntzaren normalizaziorako?

Euskal Herrian euskararen transmisioaren motor nagusia eskola da. Eta munduko beste hizkuntza gutxitu gehienetan ere hala gertatzen da. Eskola da hori ziurtatzen duen baliabide nagusia. Gurean gazte euskaldunen % 80k eskolan ikasi du euskara. Beraz, pentsa zer-nolako ardura daukagun. Euskararen transmisioa benetan ondo egiteko gai garela demostratu behar dugu eta etengabe egon behar dugu hori gainbegiratzen. Ezin da pentsatu “badauzkagu nahiko irakasle, badauzkagu nahiko eskola, ume bakoitza bere lekuan dago, kopuruak ziurtatuta dauzkagu, materiala badaukagu... Kito!” Ez, ez. Norberarena ez den hizkuntza bat irakatsi behar du eskolak eta hizkuntza hori gutxitua delako denbora guztian ahalegin berezia egiten aritu behar dugu.

Euskara irakasteaz gainera, eskolaren bitartez hizkuntza hori erabiltzeko adostasuna ere lortu behar da. Gaur egun eskoletan hori ez da gehiegi esaten. Garai batean kontzientzia handiagoa zegoen. Guk euskal eskolak martxan jarri genituean garrantzi berbera ematen genion euskara hizkuntza bezala irakasteari eta hizkuntza horren transmisore eta normalizatzaile izateko haurrak hez-teari. Eskolan hori ere erakutsi behar

“Haur baten eta bestearen arteko diferentziak handiak dira gehienetan, eta hizkuntzen irakaskuntzaren kasuan, ezberdintasun indibidual horri lotzen zaio ezberdintasun linguistikoa. Hortaz, aniztasuna oinarri izanik egin behar den lan bat da irakaskuntza. Ez dago formula emanik.”

“Ez da hain beharrezkoa 4 urterekin ingelesa irakasten hastea. Norbaitek hala nahi badu, umeari ez dio kalterik egingo. Haurra gai da txikitatik hiru hizkuntza ikasteko. Baina dauzkagun baliabideak ikusita, indarra non jarri erabaki behar dugu”



da. Euskara ikastea ez da ingelesa ikastea bezala. Euskara ikastea da hizkuntza gutxitu baten jabe egitea eta hizkuntza gutxitu horren arduraz zure gain hartzea. Eta hori eskolan esatea ez da bekatu. Orain batzuek esaten dute ikasleak gehiegi bultzatzen direla euskara erabiltzera eta eurek erabakiko dutela nola hitz egin. Eta, egia da, eurek erabakiko dute, baina zuk esaten badiozu zer garrantzia daukan euskararen gaineko kontzientzia hartzeak hizkuntza horren biziraupenean eta normalizazioan, beste gauza bat ere jakin egingo du ikasle horrek.

Askotan hitz egiten da etxeko hizkuntzan eskolatua izatearen garrantziaz. Baina zuk esana da hori esatea demagogikoa dela zein hizkuntzaz ari garen jakin gabe.

Nik ez dut ezagutzen etxetik hizkuntza handi batekin datorren inor bere hizkuntza zalantzan jartzen duenik. Bere hizkuntzaren harrotasunik ez du galtzen, adibidez, etxetik gaztelania dakien batek. Aldiz, euskara etxetik

dakarrena, gero beste hizkuntza batean egitera derrigortzen badute, bere etxeko hizkuntza zalantzan jartzen du. Horregatik eskolak hizkuntza gutxituaren alde egin behar du, eta horrek ez du esan nahi beste hizkuntzen kontra ari denik.

Era berean, euskara ikastearekin euskararen indargune bihurtzen zara, zu zure baitan. Baina horrek ez du esan nahi gaztelania gaitzetsi behar duzunik. Hizkuntzarekiko identitateak eta atxikimenduak ez dauka bakarra izan beharrik. Gauza gara bi edo hiru hizkuntzekin bizitzeko, eta gainera, hobeto bizi gara bi edo hirurekin bakarrarekin baino. Hori da inportantea, hobeto bizi garela. Guretzat ona da. Gure ongizaterako, gure ekonomiarako, gure ezagutzarako... Maila guztietarako da hobea. Hori gure artean nahiko onartua dagoen arren, munduan zehar oraindik ere eredu elebakarra da nagusi, bereziki agintea dutenen artean. Eta ideia horrek beste guztia zalantzan jarrarazten du. Ama hizkuntzak derrigorrez eskolako hizkuntza izan

behar du? Hizkuntza hori txikia baldin bada, bai; handiek zortea dute ez daukatela eskolaren hainbesteko beharrik euren hizkuntza garatzeko.

Gaur egun, euskara eta gaztelania-frantsesaz aparte, hizkuntza asko dugu gure inguruan. Eskolan nola txertatu beste ama-hizkuntza batekin datorren haurra?

Eskolak eta gizarteak, oro har, ezagutza behar dute, uneotan daukatena baino askoz handiagoa. Jakin egin behar dugu zer daukagun. Aberastasun bat bezala ikusi behar dugu. Hizkuntza-aniztasuna guretzat eta norbanakoentzat gauza ona bada, gizartearentzat ere hala izango da, eta beraz, gure eskoletako haurrek dakartzaten etxeko hizkuntzak errekonozitu egin behar dira. Hori balio bat da eta balio hori agerian jarri behar harko litzateke, egiten dena baino askoz gehiago. Bestetik, berriz, eskolak ere ezagutu egin behar du haur horiek zein hizkuntzarekin datozen, hizkuntza horiek jatorria non duten, atzean zein kultura, zer-nolako hizkuntza-

aniztasun dagoen gelan... Eta hori ez dute soilik irakasleek ezagutu behar, baita ikasleek ere. Ezagutzen ez dena ez delako baloratzen.

Gero, zer egin horrekin? Nik uste dut etxetik euskara edo gaztelania-frantsesa ez den beste hizkuntza batekin datozen haurrentzat ere eskolak denentzat dituen helburu berberak izan beharko lituzkeela. Batzuek diote horiek ez daukatela euskara ikasi beharrik, baina nire ustez hori zen-tzuga da. Bertako hizkuntzak ikasi egin behar dituzte eta horretarako baliabideak jarri behar dira. Eskolak, segur aski, ez du baliabiderik izango datozen hizkuntza horietako bakoitza garatzeko, baina bai beste urrats batzuk emateko.

Eta zer egin dezake eskolak?

Lehenik ikasleek dakartzaten ama-hizkuntzak onartu, baloratu eta ezagutarazi behar ditu, eta bertako hizkuntzak irakatsi, horretarako beharrezko laguntza eta baliabideak jarri. Baina eskolak, egitura bezala, beste zenbait baliabide ere eskaini ditzake. Orduz kanpo hezkuntza-taldeak osatzeko aukerak, adibidez, beti ere hizkuntza ezberdin horietan nolabaiteko gutxieneko masa kritikoa baldin badago eta eurek hala nahi badute. Esate baterako, eskola batzuetan larunbat eta igandeetan arabierako eskolak ematen dituzte. Era horretako edo antzeko ekimen guztiak eskolak bere gain hartu beharko lituzke, nahiz eta ordutegi arruntean ez izan.

Hori guztia gizartera aberastasuna dakarren zerbait denez, eskolak irekitasunez jokatu behar du, eta konturatu behar du berarentzat baliabide bat gehiago dela. Ez gara ari esaten hizkuntza bakoitzeko irakasle bat jarri behar denik, baina beste era bateko aukerak ere badaude. Eskolak ikastetxetik kanpo beste gauza asko bultzatzen dituen bezala, hizkuntza horiek sustatzeko aukera ere eman dezake.

Hizkuntza gutxitua duen gizarte bateko parte gara gu. Munduko hizkuntza gutxituen ikerketan ere aditua zara. Zer daukagu ikasteko?

Nik uste dut gauza asko dauzkagula

ikasteko eta zerbait erakusteko ere uste dut baietz. Izan ere, zorritzarekin, Europan eta munduan ez dira asko bertako hizkuntza gutxituan oinarrituz irakaskuntza eleanitza bultzatzen duten sistemak.

Gertukoena Katalunia, Gales eta Galizia ditugu, baita Luxenburgo edota Andorra ere. Iruditzen zait horietako kasu batzuetan Internetek eta komunikabideek askoz ere presentzia handiagoa dutela eskoletan gurean dutena baino. Uste dut gure eskoletan oraindik ez direla nahikoa sartu komunikabideak eta IKT-ak baliabide bezala, eta erantsiko nuke gure didaktikan hori oraindik ez dugula behar beste landu.

Frisian, adibidez, irakasle berezituekin landu beharrean hizkuntza, Interneteko baliabideen bitartez lantzen dute. Horrekin ez dut esan nahi eredu hori gurean kopiatu behar dugunik, baina esperientzia horien indarguneetatik ikas dezakegu.

Hizkuntza irakaskuntzari dagokionez, zein da eskolek eskuartean duten erronka nagusia?

Egiten ari garenen konbentzi-mendua behar dugu. Oso eginkizun garrantzitsua dute gure eskolek eta irakasleek. Ez diot hori soilik euskaraz ari direlako irakasten, baizik eta beste maila bateko zerbait ari direlako planteatzen: formazio molde ezberdin batean ari gara murgiltzen. Hizkuntza-aniztasunari erantzun positibo bat emateko gauza garen heinean eta horretarako baliabide eguneratuak eta fidagarriak erabiltzen ditugun heinean, askoz ere hobeto ari gara prestatzen ikasleak, eta horrekin batera baita gizartea ere. Eskola askoz ere elementu biziago bihurtzen ari gara, eta jada ez da hor daukagun zerbitzu sozial bat soilik. Euskararen biziberritzean motor izateko aukera du eskolak. 1960-1990 urteen artean hala izan zen. Orain badirudi euskara kontuetan egin beharrekoa eginga dagoela, baina ez da hala, eta horretaz jabetu behar dugu. Hizkuntzaren normalizazioa, alegia euskara erabiltzeko gaitasuna eta motibazioa garatzea da gure eskolak eskuartean duen erronka garrantzi-tsuenetariko bat.

“Euskara irakasteaz gainera, eskolaren bitartez hizkuntza hori erabiltzeko adostasuna ere lortu behar da”

“Munduan zehar oraindik ere eredu elebakarra da nagusi, bereziki agintea dutenen artean. Eta ideia horrek beste guztia zalantzan jarrarazten du. Ama hizkuntzak derrigorrez eskolako hizkuntza izan behar du? Hizkuntza hori txikia baldin bada, bai; handiek zortea dute ez daukatela eskolaren hainbesteko beharrik euren hizkuntza garatzeko”

“Hizkuntza-aniztasuna guretzat eta norbanakoentzat gauza ona bada, gizartearentzat ere hala izango da”

ESPERIENTZIAK 1

GORPUTZALDIAK

Gorputzaren bidez gaitasun sozio-afektiboak lantzen

Euskararen Gizarte Arte-hezkuntzako proiektu bat da Gorputzaldiak. Gorputza eta mugimendua ardatz hartuta, dantzaren balio pedagogikoak eskolen zerbitzura jartzea du xede. Zehazki, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzentzen zaie. Gelan gaitasun sozio-afektiboak lantzea helburutzat hartuta, irakasleek prestakuntzan jasotzen dutena ikasleekin aplikatzen dute gero. Dantzaren arloan eskarmentu luze bezain zabala duten bi lagunek, Amaia Navascues eta Ana Remiro dantzari eta dantza-irakasleek, sortu dute proiektua, Gipuzkoako Dantzagunearen babesarekin eta Lasarteko Berritzegunearekin elkarlanean.



Ana Remiro eta Amaia Navascues *Gorputzaldiak* proiektuaren arduradunak.

Dantzaren inguruan izan daitezkeen aurreiritzi nahiz estereotipoak albo batera utzita, gorputzarekin zein mugimenduarekin esperimentatzeko aukera eskaintzen die Gorputzaldiak proiektuak irakasleei. Dantzan erabiltzen diren tresnak eskuratzen dituzte, horien bidez ikasleekin gaitasun sozio-afektiboak jorratzeko.

Orain dela hiruzpalau urte hasi zen egosten proiektua, Gipuzkoako Dantzagunearen inguruan. Dantza, mundu bakartu batean bezala, gizartetik oso urrun zegoela ohartu zen hainbat eragile, eta, lehentasunen artean, dantza jendartera gerturatzeko

sentsibilizazio-lana egitea adostu zuten. Hasteko, hezkuntza-arloan jarri zuten jomuga.

Ia hiru urteko lanaren ostean, Amaia Navascues eta Ana Remiro dantzari eta dantza-irakasleek Gorputzaldiak proiektua ondu dute. Dantzaren eremutik abiatuta, ekarpen bat egin nahi izan diote hezkuntzari; hau da, dantzaren balio pedagogikoa hartu dute, hezkuntzaren zerbitzura jartzeko.

Enpatia, konfiantza nahiz asertibitatea

Proiektua osatu eta zenbait saio egin ostean, Lasarteko Berritzegunera iritsi ziren Navascues eta Remiro. Gizar-



Urtarrilaren 28an eta 29an, irakasleei zuzenduta, *Gorputzaldiak* proiektua lantzeko saio irekia egin zuten Donostiako Tabakalera.

tean dantzaren jakintzaren inguruan dagoen hutsunea zuten gogoan bi dantzariak, Berritzegunera jo zutenean. Han, berriz, irakasleen artean nabaritzen zuten bestelako hutsune baten berri eman zieten: norberaren gorputzari entzuteko eta gorputza ikaskuntza-prozesuekin uztartzeko zailtasuna, hain zuzen.

Hezkuntza-curriculumetan gorputzaren eta mugimenduaren lanketak tokia izan arren, praktikan, arlo horri eskolatan ia ez zaiola tokirik egiten konturatu ziren bi adituak. “Irakasle askok ez dute gorputz-praktikarik egin. Batzuek atzera egiten dute dantza aipatze hutsarekin. Izan ere, ondo edo gaizki egitearekin, birtuosismoarekin, akrobaziekin... erlazionatzen dute dantza”. Haien planteamendua, ordea, oso bestelakoa da: ez dago kanon estilistikorik, ezta ongi edo gaizkirik ere; xedea da irakasleek gorputzarekin eta mugimenduarekin esperimentatzeko beldurra galtzea eta beste tresna bat eskaintzea, ikasleekin gelako jardunean erabiltzeko. “Irakasle askok gorputzaren bidez ikaskuntza-prozesuak bizi beharra sentitzen du, baina iruditzen zaio horrek beste mundu batean sartzea eskatzen duela eta hori bere gaitasunetatik kanpo dagoela.

Kontua da, ordea, denok daukagula gorputza, eta denok esperimentatzen dugula gorputzaren bitartez. Beraz, norberak bere gorputzarekin konfiantza hartzea da gakoa, eta beste egoera batzuk bizitzera ausartzea”, argitu du Navascuesek.

Hala, 2014-2015 ikasturtean, Gipuzkoako sei eskolatan jarri zuten abian Gorputzaldiak proiektu pilotua. Eta, 2015-2016 ikasturtean, hamahiru eskolarekin ari dira lanean; tartean, aurreko ikasturteko seiak. Haurrekin lantzeko moduko hainbat unitate didaktiko prest dituzte irakasleek, eta, horiek jorratzen hasi aurretik, prestakuntza jasotzen dute, Navascuesen eta Remioren eskutik. Zuzenean saio praktikoak egiten dituzte irakasleekin, gorputzaren bidezko esperientziak beren azalean bizi ditzaten. Saio horietan ezagututako teknikak, tresnak nahiz estrategiak ikasleekin aplikatzen dituzte gero.

Zeharkako gaitasunak lantzen dituzte proiektuaren bidez, eta, horren baitan, gaitasun sozio-afektiboak zehazki; hala nola enpatia, konfiantza edota asertibitatea. Hiruhileko bakoitzean, gaitasun horietako batean zentratzen dira. Gai horietako bakoitza, berriz, lau unitate didaktikok

osatzen dute, astez aste hilabetez zehar egiteko prestatuta daudenak. Saio bakoitzaren hasieran egiteko moduko beroketa-ariketak, saioaren garapenerako jolasak nahiz itxiera-estrategiak proposatzen dira berorietan: “Nahiko antolatuta dago unitate bakoitza, baina, era berean, proposatzen diren lan-moduak oso irekiak dira. Hau da, bakoitzak bere erara jarduteko aukera du. Gure helburua da ikasle nahiz irakasle bakoitzak bere espresio pertsonala agertzea. Alegia, jarraibide batzuk ematen dira ariketak egiteko, baina inondik inora ere ez da zehazten mugimenduak nolakoa izan behar duen”, azaldu du Remiok.

Ikastetxeek batez ere tutoretza-orduetan lantzen dute Gorputzaldiak proiektua, baina baita musikako nahiz gorputz-heziketako ikasgaietan ere. Edonola ere, Navascuesen eta Remioren xedea irakasleei hainbat erreminta eskura jartzea da, hainbat egoeratan erabili ahal izateko. Bestalde, ikastetxe bakoitzak ere malgutasun osoa du, proiektua egoki iruditzen zaion moduan aplikatzeko. Batzuek Haur Hezkuntzan nahiz Lehen Hezkuntza osoan jarri dute abian. Beste batzuek, aldiz, maila jakin bateko tutoretza-orduetan soilik. Baina,



“Irakasle askok gorputzaren bidez ikaskuntza-prozesuak bizitzeko beharra sentitzen du, baina iruditzen zaio horrek beste mundu batean sartzea eskatzen duela eta hori bere gaitasunetik kanpo dagoela. Kontua da, ordea, denok daukagula gorputza eta denok esperimentatzen dugula gorputzaren bidez. Beraz, gakoa da norbere gorputzarekin konfiantza hartzea eta beste egoera batzuk bizitzera ausartzea”

hori bai: proiektuan parte hartzeko, zentro bakoitzetik gutxienez bi irakasle Navascuesek eta Remirok ematen dituzten prestakuntza-saioretan parte hartu behar dute. Horrez gain, saio bat egiten den bakoitzean, balorazio-txostena helarazi behar diete prestatzaileei. Horrek proiektuari etengabeko jarraipena egitea ahalbidetzen du, eta aurrera begira egin beharreko urratsetan hobekuntzak txertatzea.

Beste era bateko bizipenak

Gorputza beste modu batera bizitzeko eta gelan beste era batera egoteko aukera ematen die ikasleei Gorputzaldiak proiektuak. Koordinatzaileek adierazi dutenez, bat-bateotasuna, naturaltasuna, gorputzarekin esperimentatzea, ikaskideak beste modu batean ezagutzeko aukera, ohikoa ez den moduan harremanak izateko abagunea... eta beste hainbat jarrera bizitzeko modua dute ikasleek.

Jolasa du oinarri proiektuak. Esate baterako, balio sozio-afektibo gisa enpatia ari badira lantzen, fisikoki aldamenekoaren larruan jartzen dira ikasleak, Gorputzaldiaren baitan proposatutako dinamikekin. Hau da, pertsona batek posizio bat hartzen du, eta hor gelditzen da. Beste pertsonak, forma horren “espazio negatiboetan” kokatzen du bere gorputza, alegia, hutsuneetan, puzzle bateko piezak izango balira bezala; baina elkar ukitu

gabe, hiru dimentsioko espazioan. Orduan, posizio jakin hori hartu duen lehenengo pertsona bere posiziotik mugituko da (ukitu gabe); bigarren pertsonak, berriz, espazio hutsak betetzen jarraituko du hasierako posturan, eta, bitartean, lehenengo pertsonak haren hutsuneak beteko ditu, beste postura bat hartuta. “Era horretako ariketen bidez, bestearen gorputzaren hizkuntzan barnertzen gara. Segur aski, ez da prozesu arrazionala, baina, akaso, konturatuko gara sorbaldak aurrera botata dituela besteak, burua behera... Eta hainbat sentsazio biziaraziko dizkigu agian horrek, eta zenbait ondorio atera ahal izango ditugu horretatik”, azaldu du Navascusek.

Beste adibide bat jartzearen, esate baterako konfiantzaren gaitasuna lantzen ari badira, binaka jarri, eskutik heldu, eta, bataki begiak itxita dituela, bestearen laguntzaz ibiltzeko ariketa egingo dute. Edota, asertibitate lantzeko unitatean, honako hau izan liteke jarduera bat: taldekide guztiak bi lerrotan banatzen dira, bata bestearen aurrean. Pertsona batek beste bat izango du parean, eta elkarri begiratuko diote begietara. Lerro bat mantso-mantso ibiltzen hasiko da, bakoitza bere bikotekidearengana hurbilduz. Geldi dagoen pertsona deseroso sentitzen hasten denean, “nahikoa!” hitza esango dio bestea-

ri, eta azken hori gelditu egingo da. Gero, rolak aldatu egingo dituzte, esperientzia bera bi aldeek bizi ahal izateko.

Hainbat jolasen bidez hamaika esperientzia bizi ondoren, esperimentatutakoa hitzez adierazten dute, saio bakoitza amaitzeko. Izan ere, ardura-dunen esanetan, sekulako garrantzia du bizitakoari hitza jartzeak, horrek esperimentatutakoaren gainean kontzientzia hartzea ahalbidetzen baitu. Hala zehaztu du Remirok: “Saio bakoitzaren amaieran, bakoitzak zer sentitu duen, zer aurkitu duen, zertaz ohartu den, zer-nolako bizipenak izan dituen... esaten du, eta, hala, elkarrekin partekatzen dute esperientzia”.

Navascues eta Remiro gustura daude oraingoz proiektua izaten ari den garapenarekin. Baina bi erronka nagusi dituzte: batetik, proiektua ekonomikoki bideragarria egitea; eta bestetik, gehiegizko dimentsiorik har ez dezan saiatazea. Izan ere, ikastetxe asko ari dira proiektuaren inguruko interesa erakusten. Baina ez dute nahi produktu soil bilaka dadin. Izan ere, bai prestatzaileek eta bai irakasleek berebiziko garrantzia ematen diote ikasleekin ezer praktikan jarri aurretik esperientzia beren azalean bizitzeari, bestela, sarri, proiektuak teoria soilean geratzen baitira; eta irakasleekin aurrez aurreko lan hori egiten jarraitu nahi dute aurrerantzean ere.



Burdin Harana Legazpi - Gipuzkoa

www.lenbur.com

ikerketa@lenbur.com

943 73 18 95 // 943 73 04 28

LENBUR
FUNDATZIOA



Mirandaolako Burdinola martxan!!

Talde handientzako prezio bereziak.

Nahi izanez gero, ingelesez egin daiteke bisita, gidari natibo batekin.

Olapintxoak dastatzeko aukera dago.



Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziora Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.



Hiru gune

Burdinolen Ibilbidea, XI-XIX menderaino:
Aizkorri-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA ibaia jaiotzen da, Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta baserritarrak bizi izan dira.
- Artzaintzaren Ekomuseoa
- Ogiaren Txakoa

Mirandaolako Parkean, XIX. menderaino.
Aurre industrializazioan murgilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energiak, lanbideak eta bestelako gaiak lantzen ditugu.
- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

Langileen Ibilbidea, Iraultza Industrialia.
Burdinola zaharrak lantegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baserri asko langileen etxebizitza. 1950. urtean murgilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatu batetan.
- Lantokia
- 1950eko eskola eta etxebizitza.

Egun bateko edo bizpahiru egunetako egonaldiak. Eguraldi txarrarekin "B" plana. Maila guztiei egokitutako tailer eta bisitak. Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haur-parkea, pista jokoa, eta beste daude.

ESPERIENTZIAK 2

ALBAOLA ETA BALEA

Euskal baleazaleen hari-muturrei tiraka

Euskaldunak baleetara joaten ziren garaiari buruzko proiektua ari dira lantzen Laukizko Lauaxeta Eskolan. Astelehenetik ostegunera arratsaldero, LHko 1. mailatik hasi eta 6. maila arteko ikasleek nahasian, balea, arrantza, Ternuarako bidaiak, XVI. mendeko bizimodua eta antzeko gaiak ikertzen dituzte, euren interesetik abiatuta eta taldean lan eginez. Hasiera batean, proiektua jorrazteko irailetik Gabonak arteko tartea hartu bazuten ere, mamitsua ari da izaten lanketa eta ikasturte amaiera arte aurrera egitea erabaki dute.

Joan den ikasturtean piztu zitzairen Laukizko Lauaxeta Eskolako (Bizkaia) irakasleei euskal baleazaleen inguruko proiektua lantzeko ideia. Albaolak Ziburuko Piarres Larzabal ikastetxearekin (Lapurdi) elkarlanean egindako *Baleontziaren Bidea* gida pedagogikoaren aurkezpenean izan ziren, proiektua gustatu eta 2015-2016 ikasturte hasieran martxan jartzea



Maribi Rodriguez Lauaxeta Eskolako zuzendaria eta Jugatx Ormaetxe ikasketa-buruak.

erabaki zuten.

Ez da eskola handia Lauaxeta. 69 haur eta 9 irakasle dira guztira. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza egiten dituzte bertan. DBH egitera, berriz, kanpora joaten dira. Azken urteetan aldaketa ugari izan ditu Laukizko eskolak irakasleei dagokienez, eta beraz, Maribi Rodriguez zuzendariak eta Jugatx Ormaetxe ikasketa-buruak azaldu bezala, hezkuntza ildo-argirik ere ez du izan, baina astiro-astiro ari dira eskolaren nortasuna definitzen. Horren erakusle da pasa den ikasturtean hezkuntza-proiektua definitu izana. Berorren ildo nagusia da haurren interesetan eta nahietan oinarritzea eta hortik abiatuta gaitasunak lantzea: “Esperientzietatik ikas dezatela, era manipulatioan eta logikoan”, argitzen du Rodriguezek.

Proiektua lan egiten duten lehen aldia ez bada ere, ikasturte honetan,

estreinakoz, gai nagusi bat hartu dute —balea, hain zuzen— bi arlo lantzeko: zientzia eta gizarte. Astelehenetik ostegunera arteko arratsalde guztiak erabiltzen dituzte horretarako, eguneko ordu eta erdi. Goizetan, ostera, “arlotan” jorrazten dituzte, hizkuntzak edota matematika, adibidez: “Goizetan eskuratzen dituzten baliabideak, arratsaldean, nolabait praktikan jartzen dituztela esan dezakegu”, dio Ormaetxek.

Lauaxeta Eskolako ikasle guztiak ari dira proiektua lantzen. Bi eraikitetan banatuta —batean HHkoak eta bestean LHkoak— goizetan zikloka lan egiten badute ere, arratsaldean adin guztiak nahasian aritzen dira. Lehen Hezkuntzako zentzora egin du bisita Hik Hasik.

Proiektu bat, bost lan-ildo

Laukizko Eskolako irakasleek Albaolara egindako bisita, proiektua

abiatzeko akuilu baino ez zen izan. Behin ikasleei gaia aurkeztuta, haiek dira ikerketa aurrera daramatenak eta arian-arian proiektua eraikitzen ari direnak. Ikasturte hasieran, balearen arrantzaren inguruan jakin nahi zutenaren gainean ideiak plazaratu zituzten ikasleek, eta beroiek bilduta bost lan-ildo zehaztu zituzten: 1. balea; 2. arrantza eta arrantzatu ondokoak; 3. garaiko bizimodua (XVI. mende ingurua); 4. Ternua eta bertako errealitatea; 5. arrantza-bidaia.

Lan-ildo horiek oinarri hartuta, bost taldetan banatu ziren 1. mailatik hasi eta 6. mailara arteko ikasleak. Bere interesaren arabera, ikasle bakoitzak erabaki zuen zein gai ikertu, eta beraz, zein taldetan parte hartu. Hori bai, irakasleek adierazitako eran, ikasleek taldeak osatzerako orduan badakite zenbait irizpide kontuan izan behar dituztela; hala nola, neskak zein mutilak egotea, nagusiak zein txikiak nahastea, kopurua orekatua izatea (talde bakoitzean 8 ikasle inguru)...

Lan-ildo bakoitzeko irakasle bat laguntzaile zela hasi zuten proiektua. Eta gai bakoitzaren barruan zer jakin nahi zuten zehaztu zuten lehenik, horretarako ikasle bakoitzaren burutazioak eta sortzen zitzaizkien galderak planteatuz. Esate baterako, “garaiko bizimodua” lan-ildoan ondoko ikerketa-lerroak identifikatu zituzten: urteko zein garaitan joaten ziren arrantzara; haurdun bazeuden itsasora joaten ziren edo ez (horrek generoa eta emakumearen bizimodua lantzeko balio izan die); zenbat denbora ematen zuten etxean eta zenbat itsasoan; nola ikusten zuten eta abisatzen zuten balea bazetorrela; zer jan edo edaten zuten bai etxean zeudenean eta bai itsasontzian; balerik harrapatu ezean zer jaten ote zuten; noiz harrapatu zen lehenengo eta azken balea Bizkaian; nola bizi ziren baserrietan; dantza egitea eta kantatzea gustatzen ote zitzaien; pozik bizi ote ziren; etab.

Ikerketa-lerroak zehaztu ostean, lanean hasi ziren eta geroztik talde bakoitzak bere bidea egin du. “Eurek ipintzen dituzte galderak eta eurek erabakitzen dute galdera horiei erantzuna emateko ikerketa-bidea nola



egin ere: liburuetan begiratuko dute, etxean galdetuko dute, komunikabideetara joko dute... Eta lanean hasten dira”, argitzen du Ormaetxek. Izan ere, azken batean, benetako ikerketa egiten dute ikasleek: ikertuz doazena era askotako bitartekoen laguntzaz islatzen dute, baina entsegu-errore dinamikaren bidez funtzionatzen dutenez, momentu batean era batera dela diotenak ez du zertan zuzena izan: “Batzuetan aurrera egiten dute, gero berriz ere atzera egiteko. Askotan orain era batera dela uste dutena, gero beste era batera dela konturatzen dira”.

Tarteka, ikasle guztiak batera

Tartean behin bost taldeak elkartu egiten dira hainbat esperimentu eta aurkikuntza elkarrekin partekatzeko. Esate baterako, “Arrantza” taldekoak animalia ornodunak eta ornogabeak zeintzuk ziren ikertzen ari zirelarik, sardina bat hartu eta disezioa egitea bururatu zitzaizen hezurdura nolakoa den ikusteko. Esperimentua interesgarria iruditu zitzaenez, arratsalde batez gainontzeko ikasle guztiakin ere partekatu zuten. Horrez gain, bi astean behin-edo, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak elkartzeko dira asanblada bat egiteko: “Talde bakoitzak azaltzen du orain arte zein ikerketa-bide egin duen, zer aurkitu ahal izan duen eta horrek zer-nolako lana eskatu dion. Horma-irudiak, bi-

deoak, antzerkiak... edota bururatzen zaien bitartekoak erabiliz, aurkeztu moduko bat prestatzen du talde bakoitzak beste ikasleei erakusteko zer ikertu duen orain arte”. Hala, talde batek zerbait zehatza ikertu badu eta beste talde batek ere gai bera bere ikerketa-ildoan artean badu, jakintza hori bere egiten du ikerketa-gai hori bere zerrendatik ezabatuta. Taldeak egindako ikerketak sozializatuz jakintza partekatzen dute hala.

Hasieran irakasleek irudikatzen zutena baino askoz ere gehiago ari da ematen balearen inguruko proiektua. Irailean Gabonak arte iraungo zuelakoan abiatu bazuten ere, ikasturte amaierara arte luzatzea erabaki dute, oraindik ikerketa betean murgilduta daudelako eta hari-mutur asko dituztelako zintzilik. Ikasleak ere interes handiarekin eta gustura ikusten dituzte eta horixe da aurrera egitera bultzatu dituen beste arrazoietako bat.

Proiektuari egoki erantzutea eguneroko erronka bada ere, eta malgutasunez nahiz irekitasunez jokatzeko eskatzen badie ere —zenbaitetan baita inprobisatzea ere— pozik daude Lauaxeta eskolako haur zein helduak proiektuaren bidez ikasten ari diren guztiarekin. Ikasturtea amaitu baino lehen egingo dute ikasleekin batera Albaolara bisita, baina ziur, ordurako, Laukizko haurrek bertan aurkituko dutena euren kabuz ikertua dutela.

EKARPENAK 1

IKASLE EUSKALDUN ELEANIZTUNAK SORTZEN

Euskara gutxi duenari, euskara gehiago

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren ekimenez ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena argitaratu zenetik zortzi urte igaro badira ere, 2008an zituen erronken antzekoak ditu gaur egun ere euskal hezkuntzak, hizkuntzen gaiari dagokionez. Horien gainean hausnartzeko, solasaldia egin zen urtarrilean, Martin Ugalde Foroak antolatuta, 'Ikasle euskaldun eleaniztunak. Nola?' izenburupean. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok gidatuta, hainbat lagunek parte hartu zuten mahai-inguruan: proposamenaren koordinatzaile eta Hik Hasiko kide Arantxa Urbek, Ikastolen Elkarteko ordezkari Abel Ariznabarretak eta Aitor Ikastolako zuzendari nahiz Sortzen elkarteko kide Julen Etxeberriak.

Hamaika urte egin behar da atzera, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamenaren jatorria ulertzeko. Hizkuntza-ereduen gaineko kezkek aparteko garrantzia hartu zuen 2005. urtean. Izan ere, Paul Bilbaok mahai-inguruaren hasieran azaldu zuenez, hainbat datuk agerian utzi zuten ordura arte hainbaten ahotan zebilena: ikasleen hizkuntza-gaitasunak ez zirela behar bezain onak. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI) plazaratu zituen datuen arabera, B2 maila D ereduko ikasleen % 57k zuen DBHko laugarren mailan; B ereduko ikasleen %27k; eta A ereduko bakar batek ere ez (B2 maila hizkuntza-arloko gaitasuna neurtzeko Europar erabiltzen den estandarra da, eta maila ertain-altuari dagokio, bai idatzian eta bai ahozkoan). Testuinguru hartan jarri zuen Kontseiluak ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena mahai gainean. Harrezkero, hainbat ahalegin egin da hizkuntza-ereduen gaian aurrera egiteko, baina proposamena sortu zeneko egunerokotasunak antzekoa izaten jarraitzen du.

Eskolari aitortu egin behar zaio azken hamarraldietan ikasleak euskalduntzen egin duen lana, proposamenaren koordinatzaile Arantxa Urbereren esanetan. Hala ere, iruditzen zaio,

urrunago iritsi nahi bada eta legeak agintzen duena erdietsi nahi bada —alegia, nahitaezko eskola-garaia amaitzen dutenean neska-mutilek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat edo bi ondo jakin ditzaten nahi bada—, eskolak orain arte egin duena baino zerbait gehixeago egin beharko duela: “Proposamena jorratzen ibili ginen lagunen iritziz, hezkuntza-sistema gai da gaur egun ematen dituen emaitzak baino hobeak emateko, baliabide guztiak haren esku jarritz gero; baina, guztiarekin ere, mugatua da haren eragina”.

Horrexegatik, eskolak motorra izan behar duen arren, aisialdiarekin ere koordinazio estuan lan egin behar dela uste du. Izan ere, eskolako ateetatik kanpo, mundu oso bat dago. Eta, Urbereren irudiko, eskolan ikasitakoa ikasleentzat funtzionala izatea lortu ezean, zaila izango da haurrek eta gazteek euskara beren bizitzako pasadizoekin, gertaerekin nahiz intereseekin lotzea eta, horren ondorioz, motibazioan eta erabileran eragitea. “Hizkuntzak balioko du, komunikazio-egoera guztietarako erabilgarri gertatzen den neurrian. Komunikazio-egoera horiek hezkuntza arautura eta eskola-mundura mugatzen badira, jai dugu segur aski, hizkuntzarekiko atxikimenduari eta erabilerari dagokienez”



Ezkerretik eskuinera: Abel Ariznabarreta, Ikastolen Elkarteko ordezkaria; Arantxa Urbe, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamenaren koordinatzailea eta Hik Hasiko kidea; Julen Etxeberria, Aitor Ikastolako zuzendaria eta Sortzen-eko kidea; eta Paul Bilbao Kontseiluaren idazkari nagusia.

Irteerako profila zehazteko premia

Etorkizunari begira jarrita eta he-mendik aurrera nola eragin daitekeen galdetuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean legeak aipatzen duen ikasleen hizkuntzen eskakizun-maila zehazteko premia nabarmendu zuten mahai-inguruko hiru partaideek, lehenaren artean. “Zer da ahoz zein idatziz modu egoki eta eraginkorrean komunikatzeko gai izatea?”. Galdera horixe planteatu zuen Egiako Aitor Ikastolako zuzendari eta Sortzen elkarteko kide Julen Etxeberria. Izan ere, zehaztaren hori egitea urgentzia da, haren esanetan, baldin eta ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko bidean aurrera egingo bada.

Horrekin batera, eskolaren eta herriaren arteko lotura egiteko dagoen beharra ere mahaira atera zen solasaldian. Etxeberria adierazi zuenez, orain ere egiten da uztarketa hori, baina militantzia. Ongi aurreikusitako eta planifikatutako zerbait izan behar luke, ordea. Ildo berean mintzatu zen Ikastolen Elkarteko kide Abel Ariznabarreta ere. Haren irudiko, eleaniztasun-planteamenduak egitean, euskararen lekua ziurtatu behar

litzateke eskola barruan zein kanpoan, kolokan jar baitaiteke, bestela, euskararen garapena, bereziki ingelesa eta prestigio sozial altuko horrelako hizkuntzak alboan izanda.

Zentzu berean, eskolaren eremutik harago, gizarte osoaren helburu kolektiboa izan behar luke euskararen biziberritzeak, Ariznabarretaren hitzetan. Alegia, helburu nazional gisa planteatu behar litzateke, bestela, “partxeak jartzen” jarraitzeko arriskua bailegoke. Planteamendu horri hezkuntza-sistema propio bat eraikitzeke erronka gehitu zion Ikastolen Elkarteko kideak, eta hezkuntza-sistema bere osotasunean hartuko duen hezkuntza-lege baten beharra aldarrikatu zuen. “Badakigu hori ez dela panazea izango, ez duela dena konponduko. Lege organikoaren arriskua ere hor edukiko dugu; baina, nolahi ere, hezkuntzaren eremuan iparra definitu nahi badugu, beharrezkoa izango da”.

Euskal kultura biziberritzea, erronka “Eztabaida genezake zer den euskalduntzea, eskolak zenbateraino euskaradun egin dituen ikasleak, eta

zenbateraino euskaldundu dituen”. Urberen hitzak dira, baina ados agertu ziren Ariznabarreta eta Etxeberria ere, hezkuntza-sistematik hasita euskal kultura biziberritzeko dagoen beharra azaltzeko orduan. Izan ere, Ariznabarretak azaldu zuenez, euskal hezkuntzak bi eginkizun uztartu behar lituzke: “Euskara helduleku duen euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ziurtatu beharko du lehenik, eta, horrekin batera, baita egungo gizarteak eskatzen dituen kultura-ezagutza unibertsalak ere”.

Edonola ere, ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko gako euskara gutxi duenari euskara gehiago ematea dela argudiatu zuten partaideek. Urbek zehaztu zuenez, ezinbestekoa da 0-3 zikloan murgiltze- eta mantentze-ereduak ezartzea, eta hor inbertitzea indarra, dirua eta bitartekoak. “Pentsatzen dut denbora ez genukeela pasatzen utzi behar berriro, jakin gabe egiten ari garena eragingarria den eta euskararen berreskuratze- eta normalizazio-prozesuan aurrerapausoak ematen ari garen edo ez. Zeren, heziketako guneetatik ateratzen diren belaunaldiak euskaldunak izan ala ez dago jokoan”.

EKARPENAK 2

NORBERE LANAREN BEHAKETA

Nola aztertu nork bere lana eta besteena, modu eraikitzailean?

Irakaskuntza-alorrean izan dudan lan-esperientzia praktikaldira mugatuta egon bada ere, ikasle askoren gaitasunak eta ahalmenak baztertuta ikusi ditut. Zenbat indar, gogo, zirrara, gogoeta, hausnarketa, berezitasun... ukatzen zaizkien ikasleei malgutasunik gabeko hezkuntza-sisteman! Bide egokia bakarra da, eta zehaztuta dago. Horretara moldatzen ez denak (izan bide malkartsuagoak edo lasaiagoak direlako edota asfaltoz edo galtzada erromanikoz egindakoak direlako) beste ibilbide bat aukeratu beharko du, erremediorik gabe.

Tolosako Hirukide Ikastetxean, ikasleak hezteaz gain, irakasleen prestakuntzaren eta taldeka elkarlanean aritzearen garrantziaz jabetu gara azken urteotan.

Prestakuntza-ibilbide horren muienean, lan sendoa egin du Hizkuntza Normalizazioko Taldeak. Lau urtetik behin egiten dira diagnosis eta hurrengo lau urterako proiektua; bai



Joseba Antxustegi

Tolosako Hirukide Ikastetxeko Hizkuntza Plangintza arduraduna

eta urtero proiektu hori gauzatzeko plangintza eta memoria ere. Lan horretan, beti sortzen dira gogoetak eta kezkek. Horien artetik, bi aipatuko nituzke: batetik, jaso dugun teoria gure praktikan zenbateraino islatzen ote den; eta, bestetik, hizkuntzen irakaskuntzako ikuspegi sozio-diskurtsiboa nola barneratu benetan gure egunerokoan.

Zuzendaritzak, Hizkuntza Normalizazioko Taldearekin hitz egindakoak eta jasotako kezkek kontuan hartuta, talde hori Hizkuntzen Hausnarketa Talde bihurtu zuen, eta hizkuntzen inguruko hausnarketa-prozesua bideratu zuen.

Horrela, duela hiru urte, erabaki zuen partaideen egunerokoa bideoz grabatzeko esperientzia abian jartzea. Eskolan, ez zen ohikoa bideoak prestakuntza-lanerako erabiltzea. Bideo-grabaketak egiten zirenean ere, irakaslea ez zen guztiz jokoan sartzen, eta, askotan, ez zen agertzen kameraren enkoadraketan. Baina, proiektu edo egitasmo horrekin hasi ginenean, irakaslearen jarduna grabatu genuen. Aldaketa nabarmena izan zen: hobekuntza norberarengandik hasia ahalbidetzen duen prestakuntza-eredu interaktiboa abiarazi genuen, eta zabaldu egin da eredu hori, gaur egun arte.

Urratsez urrats, prozesuko kiribiletik kiribilera, zaildutako sei irakasle eta unibertsitatean Hezkuntza Graduak diharduten hiru ikasle elkarrekin hasi ginen lanean. Hizkuntzen Hausnarketa Taldeko partaideok bideoak grabatu ditugu; gero, bakoitzak miatu ditu, eta, azkenik, konfiantzaz-

ko beste pertsona batekin kontrastea esaten duguna egin du. Material hori, hots, sortutako hausnarketak, guztion begi-bistan jartzen saiatu gara. Zeregin horretan, Mondragon Unibertsitateko Arantza Ozaetarekin eta Eneritz Garrarekin nahiz Genevako Unibertsitateko Itziar Plazaolarekin elkarlanean aritu gara.

Adimen emozionalarekiko lotura

Gauzak argitze aldera, atzera egitea komeni zaigu. Ikastetxean, 2005. urtetik aurrera, adimen emozionala garatzeko prozesu luze eta emankorra bizi izan dugu. Urte horietan, garatzen joan gara ikastetxeko proiektuaren beste atal asko ere, eta, horretarako, hainbat lantalde eratu dira. Bada, hemen azaltzen ari garen esperientzia hau horrekin guztiarekin lotzea zen helburu nagusia.

Garai horretatik aurrera, irakaslea irakaskuntza-lanean sortzen diren zirrarak identifikatzen, ulertzen eta doitzen saiatzen da, gero, ikasleekin landu ahal izateko. Horren ondoren, ikasleek beraiek beren zirrarak identifikatzen eta doitzen ikasten duten heinean, elkarbizitza-giro hobea lortzen da ikasgelan eta eskolan.

Jakin badakigu ikasleek ikasgelan jasotzen duten afektibitatearen kalitateak, lagunarteko loturek edota ikasleen eta irakasleen arteko erlazioek izugarrizko eragina dutela ikasketetan.

Irakaskuntzan, ezagutzek garrantzi handia izan dute, eta nabarmena da pisu hori oraindik ere. Baina, esan bezala, gure ustez, ezinbestekoa da giro emozional aproposa sustatzea, eragin positiboa izango baitu irakaskuntza-prozesuan. Hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko garaian ere, alderdi emozionala kontuan hartu beharra daukagu, nahitaez: autoestimua, antsietatea, ikasleekiko eta irakasleekiko enpatia, edota arriskuei aurre egiteko modua.

Hasieran, bideo-grabaketak ikerketarako materialtzat erabiltzea erabaki genuen lau lankide. Grabaketetan, gelako elkarrekintzan parte hartzen zuten guztiak agertzen ziren, irakaslea barne. Erabaki genuen grabatutako guztia gure artean banatzea, eta, gure taldetik at zerbait ateratzekotan,



beti denon adostasunez eta baimenarekin egitea. Esperientzia horretako partaide kopurua handitu ahala, horri eutsi genion, baina hasieratik azpimarratzen genuen zirrarak jokoan zeudela.

Arazoi horiengatik, ez dago juzgurik irakaslearen autoezagutzarekin lotura duten elementuen gainean. Ikasgelan lan egiteko, oinarritzko faktoreak dira, adibidez, autoritatea, egoeren kontrola, malgutasuna, adeitasuna, ikasleen arreta lortzeko estrategiak, ikasleekiko enpatia, taldeak dinamizatzeko gaitasuna, arazoei aurre egiteko abilezia, antsietatearen kudeaketa, errespetua, ditugun baliabide linguistikoak eta ez-linguistikoak, gure akatsen onarpena eta hobekuntzarako ausardia. Ondo kudeatzen ez baditugu, zailagoa eta gogorragoa izango da ikastea eta irakastea, eta, beraz, komeni da aipatutako faktore horiek ondo zaintzea.

Azken batean, bideo-grabaketa irakaslearen profesionaltasuna garatzeko tresna bat izan da. Lantalde horretan parte hartzen genuenon ar-

tean ez ezik, beste lantaldeetakoekin ere bideo horiek partekatzerakoan, elkarren arteko prestakuntzan aurrera egiten ari ginela sumatzen genuen (norberaren egunerokoa zalantzan jartzeko gaitasuna, kontzientzia hartzea, proiektuarekiko koherentzia, profesionaltasuna...). Egiteko modua ere denok eskertzen genuen, noski (konfiantza, errespetua, norberaren esperientziatik abiatzea, lankideen erritmo desberdinak kontuan hartzea, juzgurik gabe, goxo, bideoa partekatzeko ueua aukeratuz...).

Klaustroaren herenera heldu garen honetan, ontzat jotzen dugu erabilitako metodologia (talde txikia, intimitatea zaintzea, praktikotasuna, xume aritzea...). Gainera, irakaslearen autoezagutza eta ikasteko eta irakasteko prozesuari buruzko kontzientzia indartu ditugu. Egun, esan dezakegu gure eskola ikasten duen erakundea ere badela. Eta, bukatzeko, praktikara darabaguna hezitzaileon artean adostuago egoteaz gain, laneko giro ederragoan egiten dugula baieztatzeko genezake.

GALDEIDAZU

ZEIN ERRONKA DITU GAUR EGUN HEZKUNTZAK?

Giza bizitzan erronkak — hitza ondo ulertu — etengabekoak dira. Giza arazoei erantzun onak ematea posible da, noski, baina hauek ez dute guztizko soluziorik. Guztiz ez dira inoiz gainditzen. Hezkuntzan ere, beraz, erronkak beti hor egongo dira.

Gure herriak hezkuntzaren eta eskolaren garrantziaz aspalditik daki. Ikastolak sortu zituen baldintzetan sortu izana da horren lekuko garbi. Eskola *serio demonio Isabel y Fernando* abestuz hasten genuenetik pauso asko eman da hezkuntza mailan, eta ia denak aurrerantz.

Ikastolak sortzeak zituen helburuak egun ikastetxe gehienek onartzen dituzte — euskara, gure munduaren ezagutza, heziketa mixtoa... —, gure herrian haur guztiek dute ikasteko aukera. Etorkinen seme-alabak ikastetxe ezberdinetan proportzionalki banatzea litzateke ondo bideratu gabe daukagun erronka bat. Euskara ikasketa hizkuntzatik bizitzako hizketara ekartzea, beste bat. Gehiago ere aipa daitezke, noski, baliabideetan atzera egiteko egun dagoen joerak dakartzanak aparte.

Baina nik hemen — aurrera egin



JEXUXMARI MUJICA
ETIKAKO
IRAKASLE OHIA



dena garbi utzi eta gero, hori bai —, hezkuntzaren zertarakoei, nolakoei eta eragileei buruzko egungo ikuspegiak dakartzan erronkei heldu nahi diet, hezkuntzaren egitekoak eta honek dituen zailtasunak edonon bezala handitu egin baitira gure artean ere.

Heziketa, haurri gizarteratzen lagundu behar dion hori guztia, gero eta gehiago eta gero eta errazago eskolaren esku uzten da gaur. Hori exijitzen zaio egiteko zailen hori, baina une berean eskolaren balioa ia soilik *edukandoa* lanerako, enplegurako, hornitzeko duen gaitasunaren arabera neurtzen da.

Heziketak eta eskolak — etxearen garrantzia izugarriari, kalearenari ere, ez diezaioket hemen heldu — bizitza irabazten baino gehiago bizitza eraikitzen lagundu behar dute. Hori eduki behar da garbi. Bizitza(en) ikastea gero eta zailagoa da egun; arrazoiak mila. Bizitza gero eta konplexuagoa da, gero eta ziztu biziagoan doa aldatzen, aldaketetara egoki jartzeko — nor izanaz — gero eta helduleku sakonagoak dira beharrezko. Gaurko haurri mundu ikuspegia ez datorkio emana, berak garatu beharko du. Egun ez dago

bide jakinik, sare bat gehienez ere. Eta hori oso gogorra da, batez ere ikasten zoazenean “zorionerantz daramatan bide-zidor guztiak faltsuak direla beti”.

Eskolak helduleku hauek eskuratzeko lagundu behar du; horretarako lehen baldintza ezinbestekoa indibidualizazioa lantzea da. Bakoitza bakoitza da, eta edonork norbera izateaz pozik egotea lortu behar du bizitzan. Lorpen zaila da hori oso, baina eskolako urte luzeek horretan laguntza etengabekoa izan behar dute, ikasle guzti-guztientzat gainera. Eta hala gertatuko da ikusi eta ikasi egiten badu ezberdintasuna onartuta dela ikastetxean, haur ezberdinen adierazgarriak errespetu berdinez direla balioetsiak, bakoitzari bera izaten lagundu egiten zaiola.

Indibidualismoarekin, noski, zerikusirik ez duen indibidualizazio ezberdinen lanketa honek presta dezake ondoen ikaslea pertsona ororen zorionerako garrantzitsuena den gaitasunerako: bizikidetzaren egokirako, ingurukoak berdinetik berdineratratzen ikasiz duzu hori posible, nor sentitzeko erasotzaile izan beharrik ez duzunean edo erasotua izatea —zeu edo beste bat— inola ere onartzen ez duzunean.

Hau guztia ondo entzuten da oso, baina honetan aurrera egiteko ba al dago posibilitaterik? Zergatik ez? Gizakiak, gazteenek batez ere, aldatzeko gaitasun izugarria dute —hori ez dakiena ez daiteke hezitzaile izan— eta egungo egoerak gainera horretara oso era berezian behartzen gaitu. Posibilitateak badaude, bai. Nola ordea?

Bide bakar eta jakinegirik ez da egongo, baina aipa daitezke eskolak bereziki kontuan izan eta landu behar dituen zenbait ikuspuntu eta balio:

- Erantzun jakinak ematea baino inportanteagoa dela galderak sorraztea. Galderek sorrazten dute interesa, galderek laguntzen dute ikuspegiak zabaltzen, galderek egiten diote zalantzari leku, eta zalantzak elkarrizketa bidera dezake, eta honek, berriz, harreman gaitasuna lantzen du beti. Eta iritzi

kritikoa.

- Austeritatea zer den eta zein garrantzizkoa den txikitatik irakatsi behar zaiela. Gutxiagoarekin hobeto bizitzen ikastearen esku dago etorkizuna, eta hori ikasteko eskubidea dute.
- Libre izateak egiten duela balioko gizakia, baina liberteatea kosta egiten dela, lortu egin behar dela, eta, noski, apeta guztiak instantean egiaztatzearekin ez duela zerikusirik. Horregatik dira borondatea eta diziplina beharrezkoak. Eskubide soilez jantzitako haur eta nerabea izatea ez dela helburua, alegia.
- Hori ikasteko haurrak bere buruarekiko distantzia hartzen ikasi behar duela —“ni holakoa naiz”, zer da hori?—, bere burua ezagutu eta garatzeko bide bakarra delako; hori ikasteko besteen beharra du, adurtoena ere bai. Bizitza zer den ikasi egin behar da eta bizitzan frustrazioak jasateko gaitasuna ere behar da. Bai horixe.
- Aukera eta eskubideetan berdintasuna gizaki guztioi dagokigula, neska ala mutil, hemengo ala hango, holako edo bestelako izan, baina ezberdintasunean bakarrik izan gaitzkeela berdinean eta berdintasunean ezberdin.
- Hau dena lantzeko, hau guztia barneratzeko, gogoeta ahalbidetzen duen hitzaren jabe egin behar dela. Hitz erabiltzen eta entzuten ikasi behar da, eskolak gaitasun hori lortzeko bideak bereziki landu behar ditu. Oso bereziki.

Lan zailak dira hauek, badakit ondo. Zailak, eta gainera emaitzak sarri ez direnez segidan ikusten, pentsa. Horregatik mila esker gizarte hobetago bat egiteko esperantzaren heziketa lanean ilusioz ari diren guztiei. Benebenetan.

Heziketak eta eskolak —etxearen garrantzia izugarriari, kalearenari ere, ez diezaioket hemen heldu— bizitza irabazten baino gehiago bizitza eraikitzen lagundu behar dute. Hori eduki behar da garbi. Bizitza(ren) ikastea gero eta zailagoa da egun; arrazoiak mila. Bizitza gero eta konplexuagoa da, gero eta ziztu biziagoan doa aldatzen, aldaketetara egoki jartzeko —nor izanaz— gero eta helduleku sakonagoak dira beharreko.

Bakoitza bakoitza da, eta edonork norbera izateaz pozik egotea lortu behar du bizitzan. Lorpen zaila da hori oso, baina eskolako urte luzeek horretan laguntza etengabekoa izan behar dute, ikasle guzti-guztientzat gainera.

Austeritatea zer den eta zein garrantzizkoa den txikitatik irakatsi behar da. Gutxiagoarekin hobeto bizitzen ikastearen esku dago etorkizuna.

ikastola garbia

eta bazkaria gozoa




Taldeetarako
sukaldaritza
eta garbiketa



ausolan



ARGITALPENAK



MARRAZKI TAILERRA

Hervé Tullet



EZ DA AHOTSIK BEHAR

Armando Quintero



USTEKABEKO FESTA

Pat Hutchins

TTARTTALO

Arte tailerrak izeneko bildumako ale berria dugu Hervé Tullet artistak osatutako liburu hau. 4 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Artistak asmatutako formekin marrazteko, koloretatzeko, osatzeko eta mozteko liburu handia da. 225 txantiloiz jasotzen ditu, hamaika istorio asmatzeko.

TXALAPARTA

Animalia guztiek dute bere ahotsa. Ahotsarekin maitasuna adieraz diezaiokete elkarri. Txakurrak zaunka egiten du, katuak miau, oiloak kakara, behiak marru, ardiak marraka, zaldiak irrintzi, otsoak ulu... Baina animalia guztiek ikasi dute ez dela ahotsik behar norbait maite duzula adierazteko.


KALANDRAKA ETA PAMIELA

“Festa bat prestatuko dut bihar”, xuxurlatu dio Untxik hontzari. Hontza katagorriarengana joan eta “Untxi siestan geratuko da bihar”, esan dio. Katagorria ahatearengana joan eta “Untxi Brest-a partituko da bihar”, xuxurlatu du. Animalia bakoitzak ulertu duena esan dio besteari...



BEGIAK ITXITA HEGAN

Leire Arano / Aitziber Alonso



BARRUKO LEIHOA

Pello Añorga



107 KIWI

Unai Elorriaga / Mikel Santos Martinez

IBAIZABAL

Irudi handiz lagundutako testu laburrekin osatzen ari den *Txirrista* bildumako bosgarren liburua da. Honako honetan, genero gaiak lantzen ditu. Izan ere, protagonistak ez ditu maite mutilei izendatu ohi zaizkien rolak, eta bere buruarekin duen identitate borroka islatzen du liburuak.

PAMIELA

Barruko leihoa haurrentzako poema liburu bat da, eta era guztietako gaiak ukitzen ditu idazleak, zazpi ataletan banatuta, naturak protagonismo berezia duelarik. Esaterako, honakoak lantzen ditu: loreak, haziak, zomorroak, zainak, zuhaitzak eta errautsak; baita maitasunak, eta, nola ez, hitzak.

ELKAR

Fantasia eta xarmaz beteriko abentura da honakoa. Aroa da istorioaren protagonista. Bere aita, Pelix, alai eta maitagarria da, baina baita xeble samarra ere. Baina, halako batean, desagertu egingo da, eta Aroak, Txoribel bere belearekin batera, aitaren bila joan beharko du.

PROPOSAMENA

‘FUTBOLARIAK ETA PRINTZESAK’

Antzerkia eta umorea, genero-rolak zalantzan jartzeko baliabide

Generoari loturiko topikoak hausteko helburuarekin, Eidabek ‘Futbolariak eta printzesak’ antzezlanaren sortu du, Galder Perezen testuekin eta bere zuzendaritzapean. Umorea ardatz, esketx moduko eszena laburrek osatzen dute hurrei eta gaztetxoei zuzenduriko obra hau. Antzezlanaz gain, sekuentzia-didaktiko bat ere sortu dute ikastetxeentzat, hala nahi dutenek gaia lantzen jarraitu dezaten.



Nolako da eguneroko bizitza eskolan, ikasgelan eta patioan, neska eta mutilen artean? Aukera berdinak al dituzte neskek eta mutilek, ezarritako generoaren jarrera klasikoetatik gaindi? Noraino dira haurrak libre sentitzen dutena, sentitzen direna bizi eta adierazi ahal izateko?”, galdera horiek jarri ditu mahai gainean Eidabe ekimen kulturalak, eta *Futbolariak*

eta *printzesak* antzezlanaren bidez saiatu da horiei erantzuna ematen.

Hurrei eta gaztetxoei zuzendua dago obra, eta Odei eta Lur neska-mutilak dira protagonistak. Klasetik ihes egin dute. Izan ere, besteengandik ezberdin sentitzen dira biak, ez dituztelako bete nahi neska bati nahiz mutil bati egozten zaizkien arauak eta genero-rolak. Lurrek Lur izan nahi du eta Odeik Odei, inork esan

gabe nola jokatu behar duten; mutila izateagatik futboleko jokatu behar al duten edo neska izateagatik printzesak atsegin behar dituzten.

Galder Perezek osatu ditu testuak, umore klabearen, eta berak zuzendu du, baita ere, komedia hau. Esketx moduko eszena laburrez osatua dago eta parekidetasuna zailtzen duten egoerak agerian utziko ditu, musika eta jolasa lagun.

Modu horretan, generoaren inguruko topikoak salatzea eta haustea du helburu. Jon Zubiaga eta Olatz Pagalday ariko dira Lur eta Odeiren azalean.

Eidabekoen esanetan, “barrea, mundua iraultzeko modurik ederrena izan daiteke, gure sentimenduek egiten baikaituzte aske. Eta horixe izan nahi dute Lurrek eta Odeik, libre, nahi duten hori adierazi, bizi eta sentitzeko, inposaketarik eta ariketa sexistarik gabeko mundu aske batean”.


Antzezlanetik eskolara

Antzezlanarekin batera, Eidabek sekuentzia-didaktiko bat osatu du haurrei eta gaztetxoei zuzenduta, horrela nahi duten eskoletan lantzeko. Antzezlanean agertzen diren arlo gehienak jasotzen ditu sekuentzia didaktikoak, “izan ere, obrak oso ondo biltzen ditu jendartearen estereotipo eta jarrera sexistak barneratzea eragiten duten elementuak: imaginario

bisuala, familia-eredua eta familiaren igurikapenak, publizitatea, bideo-jokoak, telebista, merkaturia edota hezkuntza-sistema bera”.

Sekuentzia-didaktikoko edukiak bi atal nagusitan banatuta daude. Horietako batzuk *Antzezlanaren ikusi aurretik* atalean daude, eta gaiarekiko motibazioa piztea eta ikasleei pentsaraztea dute helburu. *Antzezlanaren ikusi ondoren* ataleko jarduerak, berriz, hiru multzotan banatu dituzte: *Kontzientzia hartu*, *Ahaldundu* eta *Eraldatu*.

Jarduera horietan guztietan, “hitzeko hizkuntzaz gain, gorputz-hizkuntza, ikus-hizkuntza edota arte-hizkuntza” erabiliko dute. Gainera, adimen-mota desberdinak lantzeko aukera izango dute ikasleek, besteak beste, adimen emozionala. Izan ere, “emozioak identifikatzea eta adieraztea jarrera sexistei aurre egiteko ezinbesteko baldintzak” direla uste dute Eidabeko kideek.



‘FUTBOLARIAK ETA PRINTZESAK’

ZER:

Genero rola salatzen eta hausteko antzezlanak.

NORK:

Eidabe ekimen kulturalak aurkeztu du Galder Perezek idatzitako eta zuzenduriko antzezlanak. Jon Zubiaga eta Olatz Pagalday aritu dira aktore lanetan.

NON:

Hurrengo emaldien berri ikus daiteke *eidabe.com* webguneko *Agenda* atalean. Besteak beste, Bilbon, Iruñean eta Donostian izango dira martxoan.

Informazio gehiagorako: *eidabe.com*



ATZEKO ATETIK



ESKOLAREN BIZITZAN

JOSE LUIS OTAMENDI POETA ETA IRASKASLEA

Neure aldiaren ezagutza eta bizi izan dudako eskolaz mintzagura naiz, bizitzaren eskola delakoaren atal bati begia eman eta eskolaren bizitza gai harturik.

Estatu moderno edo garaikidea eratu zenetik irakaskuntzari guztizko arreta eskaini izan zaio, beharrik, gizarte eta ekonomia ereduak finkatzeko eta kontrol ideologikorako tresna larrietako bat izan baita. Hala Estatuak nola Elizak euren eskolaren larderia eta beste tasunak zurkaiztu izan dituzte besoz-beso mendetako trosta gotorrean.

Aurrerago, irakaskuntzaren demokratizatze orokor bat jendarte zibilaren ekimenez zertu zelakoan nago. Hogeigarren mendean gertatu zen aldaketa politikoa eta kulturala ikusten dut neuk horren atzean, eta irakaskuntzari gagozkiola, berriz, Ikastolaren itzal dirdaitsua.

Bistan da eskolak, indarrean dauden estatusaren gotorleku izateko ez ezik, eraldaketarako motor izateko gaitasuna ere baduela. Horregatik sortzen du horrenbesteko ardura edozein herri proiektu egituratzeko orduan ere.

Baina natorren hitz handi orokortatik bizitakoaren apalera. Eskolarekin izan ditudan hartu emanak honela labur daitezke: ikasle bizitza, herriko Institutuan egindako ikasturte bat kenduta, ikastetxe erlijiosoetan eman dut, dozena bat urte pasa Ikastolako guraso izana naiz, eta 33 urtez dihardut beharrean itunpeko Azpeitiko Iraurgi Ikastetxean. Horra nire eskolak.

Beraz ordutan, egunetan, urteetan soilik neurtuta ere eskolak tarte gaitza hartu du nire bizitzan, eta hori sentimenduak, gogoetak eta asmoak aipatu gabe. Baina memoriako biltegi, fabrika, hondartza edo zabortegietan nahi gabe bezala harrotzen dira han hemen eskolan erne sentimendu, gogoeta, asmo eta harreman saldoak. Ehundik gora lankide, ehunka guraso, milaka ikasle... Eskola bada unibertso txiki bat, bizi garen jendartearen gardenki sotila. Norbanakoaren identitatea bakuna da, bai, baina besteenarekin batera taxutzen da.

Eta eskola egunero ari da langintza horretan, ardura zuzena du nor izateko bidean hautu kontzientek egiteko pertsona orekatu sama-

rrak trebatzen. Maiz zurrunegia da eskola, geu garelako zurrun. Beste batzuetan ez, geu bestelatsu gabiltzan seinale.

Berriki jaso nion aipua Angela Davisi, "Naturaltzat jotzen dugun hori, ideologikoki sendoen eraikita dagoena izaten da". Gauzak aldatzeko daude, eskola eta geu bezala. Horretan irakasle gabiltzanon lanak asko dezake, geure txikian gure gaitasun profesionala eta kontzientzia zibikoa lagun, alde batera edo bestera eragin baitezakegu lan moduekin, jarrerekin, hitzekin...

Eskolak urteotan guztiotan bizibide duina eskaintzeaz gainera, harremanetarako, ikasteko, sormenerako eta gogoetarako espazioak jarri dizkit eskura oparo.

Etxetik eskolara bidean 105 eskailera maila igotzen ditut egunero, 105 maila jaisteko etxera honanzkoan. Gora eta behera. Horrela doa osatzen nire eskolaren bizitzan nire bizitza eskolan. Asko dago egiteko, asko pentsatzeko, asko dago asmatzeko herri izan nahi dugun munduan.

Eta eskola hor da, bizitzaren mui-
nean.

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BL
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545
www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

ARGIAren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz





“Eskoletako Hezkuntza Proiektuak” jardunaldiak

REGGIO EMILIAko Lehen Hezkuntza ezagutzen

Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskolek, 0-6 urte artekoek, ospe handia dute mundu osoan. 50 urteko ibilbidea egin eta gero, duela 6 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. Prozesua amaiturik, garai egokia da **Lehen Hezkuntzako** proiektu horren ezaugarriak eta garapena nolakoa izan den ezagutzeko.

Horretarako, jardunaldia antolatu dugu **APIRILaren 16an**, larunbata, 9:00etatik 18:00etara, **DONOSTIAN**

Aurkezpen orokorra:

- Eskolaren ezaugarriak.
- Haur Hezkuntzako filosofia Lehen Hezkuntzara nola eramán den.
- Lehen Hezkuntzako berezitasunak.

Loris Malaguzzi eskola ezagutuko dugu, 3-11 urte bitarteko haurrekin garatutakoa da. Hau da, **Haur Hezkuntzako** bigarren zikloa (3-6) eta **Lehen Hezkuntza** osoa (6-11).



Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus